

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**
Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**
Dirección de Servicios y Régimen
Jurídico

2009ko LAN MERKATUAREN ERROLDA

EMAITZA NAGUSIAK

OKUPAZIOARI BURUZKO ALDERDIAK

Euskadin 23.000 okupazio garbi baino gehiago galdu dira 2007tik 2009ra bitarte

Okupazioa % 2,4 murriztu da 2007-2009 aldian

1. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 16-64 urteko landunak 947.259 dira 2009ko laugarren hiruhilekoan; horrek esan nahi du 2007. urtearekin alderatuta, 23.698 okupazio garbi galdu direla, hau da, urte horretako okupazioaren % 2,4.

Okupazio berria sortzeko prozesu luzea amaitu da

2. 2007tik 2009ra bitarte izandako jaitsierarekin, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrerako okupazio-hazkundera bertan behera geratu da. 1993tik 2007ra bitarte, EAEko landun kopurua 683.079 izatetik 970.957 izatera igaro da, 287.878 okupazio berri garbi sortu direla.

Okupazio-krisiaren eraginpean daude industria, eraikuntza, eta garraio eta komunikazioen adarra

3. 2007-2009 aldiko okupazio-beherakada, batik bat, industrian eta eraikuntzan gertatu da, baina zerbitzu-sektorearen barruan, garraio eta komunikazioen adarra ere krisiaren eraginpean dago. Oro har, adar eta sektore horietan okupazioaren % 14,1 galdu da 2007tik 2009ra bitarte. Galera hori oso garrantzitsua da eta garrantzi hori are nabariagoa da galera horrek 1997-2007 aldian ekonomiaren adar eta sektore horietan izandako okupazio-irabazien % 71,6 osatzen duela konturatzen bagara.

Industria

4. 2007-2009 biurtekoan EAEn izandako okupazio-jaitsieraren eragin handiena industrian sumatu da. Sektore horretan, 2007tik 2009ra bitarte, 45.394 landun gutxiago daude, hau da, 2007ko okupazioaren % 17,6. Horretaz gain, 2007-2009 aldian okupazioan beheranzko joera izan duten sektore eta adarretan izandako okupazio-galera guztien % 78,9 industrian metatzen da. Krisiaren eragina hain da handia, ezen sektore horrek 2009an duen okupazio-maila 1997koa baino txikiagoa da, % 4,7. Izan ere, 2007-2009 aldian industriako okupazioan izandako jaitsiera 1997-2007 aldi osoko okupazio-hazkundera baino % 130,5 handiagoa da, bigarren aldi horretan 34.786 okupazio berri garbi metatu baitziren.

5. 2007-2009 aldiko okupazio-krisiaren eragin handiena pairatzen ari den adar multzoa metal-industria da, biurtekoan 29.710 okupazio galdu ditu-eta (23.730 okupazio metalurgia-industrian eta 5.979 okupazio makineriaren eraikuntzaren adarrean eta material elektrikoaren edo garraio-materialaren fabrikazioaren adarrean). Bestalde, industriaren gainerako adarretan guztira 15.684 okupazio garbi galdu dira 2007. urtetik 2009. urtera bitarte (9.871 elikaduraren, paperaren eta manufaktura-industriaren gainerako adarretan, eta 5.814 gainerako industria-adarretan).

1997. urtearekin alderatuta, 2009ko okupazio-maila bi adarretan baino ez zen handiagoa: makineriaren eraikuntzan eta material elektrikoaren edo garraio-materialaren fabrikazioan (% +19,9). Aldiz, metalurgia-industrian % 20,7 txikiagoa da, % 13,4 txikiagoa manufaktura-industrian eta % 3,5 industriaren gainerako adarretan.

Eraikuntza

6. Eraikuntzan 9.340 landun gutxiago daude 2007tik 2009ra bitarte. Horrek esan nahi du okupazioa % 10,5 jaitsi dela 2007. urtearekin alderatuta, 2007-2009 aldian okupazioan beheranzko joera izan duten sektore eta adarretan gertatutako okupazio-galera guztiaren % 16,2 izanik. Alabaina, industrian ez bezala, 2007-2009 biurtekoko galerak 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 34,6 baino ez dira. 2009. urtean, sektore horretako okupazioa 1997koa baino % 28,7 handiagoa da oraindik.

Garraioak eta komunikazioak

7. Zerbitzu-sektorean, 2007-2009 aldiko okupazio-galera esanguratsu bakarra garraio eta komunikazioen adarrean gertatu da, 2.810 landun gutxiago baitaude, 2007ko kopuruaren % 4,5. Jaitsiera horrek % 4,9 baino ez du osatzen okupazioan beheranzko joera izan duten sektore eta adarretan 2007-2009 aldian izandako okupazio-jaitsierari dagokionez. Bestalde, 1997-2007 aldian adar horretako okupazio-irabazien % 15,1 baino ez du hartzen eraginpean eta okupazioa 1997ko maila baino handiagoa da oraindik, % 36,4.

Jatorria 2007-2009 aldiko krisiaren aurrekoa da

8. Aztergai ditugun sektore eta adarretan gertatutako okupazio-jaitsiera 2007-2009 biurtekoa baino lehen hasi zen. Ildo beretik, 2005-2007 aldian honako aurrekari hauek nabarmenduko ditugu:

* 2006. urtetik 2007. urtera bitarte gorakada handia izan zen arren, metalurgia-industrian 2005-2006 aldiko okupazio-jaitsiera handiaren ondorioak sumatzen ari dira oraindik, 2007.

urtean, 2005eko okupazioaren % 2,9 galdu baitzuen. 2007ko okupazio-maila 2002-2003 aldikoaren oso antzekoa da.

Metal-industriaren gainerakoan, 2006-2007 aldian gorakada izan zen arren, 2005etik 2006ra bitarte ere okupazio-jaitsierak izan ziren material elektrikoaren fabrikazioan. Hamarkadaren lehen urtetako krisiaren ostean, garraio-materialaren fabrikazioan soilik, 2007ko okupazio-maila 2001. edo 2002. urteetan lortutako okupazio-mailak baino handiagoa da.

- * Manufaktura-industrian, 2005-2006 aldian okupazioaren bilakaera positiboa izan ostean, 2006tik 2007ra bitarte okupazioa % 3,1 jaitsi zen papergintzan eta % 10etik gora elikaduraren adarrean eta gainerako manufaktura-industrietan. Horren ondorioz, 2007ko maila 2002koa baino txikiagoa da adar horietan.
- * Gainerako industria-adarretan, 2005etik 2007ra bitarte, okupazioa % 1,9 murriztu zen erauzketa-industrian eta industria petrokimikoan. Era berean, okupazioa % 7,7 jaitsi zen 2006-2007 aldian kautxuaren eta material plastikoaren industrian. Industria petrokimikoan izan ezik, aztergai ditugun adarretan, 2007ko okupazio-datuak 2002koen antzekoak dira.
- * Bestalde, eraikuntzako okupazio-jaitsiera 2006-2007 urtean hasi zen, okupazioaren % 2 galdu baitzen sektore horretan. Industriaren adar askotan ez bezala, errealitate horrek haustura ekarri zuen 2006. urtea baino lehen gertatutakoarekin; izan ere, ordura arte, okupazioa etengabe hazten ari baitzen.
- * Azkenik, garraio eta komunikazioetan, 2005-2007 aldian enplegu-mailak etengabe jaitsi egin ziren, eta 2009ko okupazio-maila 2005ekoa baino % 7,5 txikiagoa da.

Aurreko datuen arabera, metal-industriaren zenbait adarretan izan ezik, industriaren, eraikuntzaren eta garraio eta komunikazioen adarren krisialdia 2005-2007 biurtekoaren uneren batean hasi zen. Beraz, aurreragoko finantza-krisiak kaltetutako sektore eta adar horiek lehendik ere egoera zailean zeuden, okupazio-mailari eusteari zegokionez.

9. Horretaz gain, egiaztatu ahal izan den moduan, industriaren adar askotan 2007-2009 aldiko okupazio-krisiaren behin betiko abiapuntua 2001-2003 biurtekoraino ere atzera daiteke. Ildo beretik, industriaren krisialdiaren benetako abiapuntua 2001. urtetik 2003. urtera bitarte gertatutako okupazio-jaitsiera izan zen. Izan ere, 1997-2001 aldian industrian okupazioa % 13,5 handitu zen, baina 2001-2007 aldi osoan ez zen % 1,8 baino gehiago hazi; aitzitik, eraikuntzan eta zerbitzu-sektorean % 15,4ko eta % 19,3ko hazkunde handiak izan ziren, hurrenez hurren, aldi horretan.

Krisiaren eragin handiena pairatzen ari diren talde profesionalak

Autonomoen kolektiboa eta sektore pribatuko soldatapekoak

10. Lanbide-egoera kontuan izanik, 2007-2009 aldiko krisiaren eragin handiena sumatzen ari direnen artean autonomoen kolektiboa dago, 14.747 okupazio galdu baititu, eta 2005-2007 aldian ere beste 6.218 galdu zituen. Oro har, autonomoen artean okupazioa % 18,3 murriztu da 2005etik 2009ra bitarte. Autonomoen kolektiboaren okupazio-arazoa, ordea, azken laurtekoa baino lehenagokoa da; izan ere, 2005eko landun kopurua 1997koaren antzekoa zen. 2009ko okupazio autonomoa, beraz, 1997koa baino % 17,8 txikiagoa da.
11. Autonomoen kolektiboan okupazioaren jaitsiera nabarmena gertatu da 2007tik 2009ra bitarte, baina aldi horretako beherakada handiena sektore pribatuko soldatapekoei dagokie. Aldi horretan, kolektibo horrek 23.881 okupazio galdu zituen, hau da, 2007ko okupazioaren % 3,6. Jaitsieraren ondorioak deigarriak dira, batez ere, kontuan izaten badugu 2007. urtera arte biztanleria mota hori zela enplegu-sorkuntzaren nukleo nagusia. Hala ere, 1997-2007 aldian hazkundera etengabea izanenez, kolektibo horren okupazioa 2009an 1997koa baino % 37,3 handiagoa da, oraindik ere.

Langile soilen lanbideak

12. Orokorrean, langile kualifikatu eta ez-kualifikatuen eta makineriako operadoreen artean, 49.674 okupazio galdu dira 2007. urtetik 2009. urtera bitarte. Galera horietatik, % 49,7 langile kualifikatuei dagokie, % 40,7 ez-kualifikatuei eta % 9,6 makineriako operadoreei. Jaitsiera horiek langile soilen guztirako okupazioaren % 8,7 osatzen dute 2007-2009 aldian.

Esan behar dugu jaitsiera horren aurretik okupazioaren hazkunde-erritmoak nabarmen murriztu zirela talde profesional horietan. Hori horrela izanik, 1997-2001 laurtekoan, hazkunde-erritmoak urtean % 3,3 ziren eta 2001-2007 aldian % 1,5era murriztu ziren. Krisiaren ondorioz, beheranzko joeran aldaketa kualitatiboa gertatu zen, eta azken urte horretatik aurrera, enplegu-galera handiak gertatu dira, 2007-2009 aldian batez besteko urteko erritmoa % -4,5 dela.

1997-2007 aldiko okupazio-hazkundera dagokienez, 2007-2009 biurtekoko jaitsierek eragin erabakigarria izan dute, 1997-2007 aldian talde profesional horietan metatutako okupazio-irabazien % 44,5 osatzen baitute (% 32,1 makineriako operadoreen kasuan, % 39,4 langile kualifikatuen kasuan eta % 59,1 langile ez-kualifikatuen kasuan).

Kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoak

13. Krisiaren eraginez, kontratatu mugagaberik gabeko soldatapekoen bolumena izugarri jaitsi da. 2007. urtean, kontraturik gabeko edo aldi baterako kontratua zuten langileak 204.973 ziren eta 2009an, 148.898 baino ez dira. Kontratu mugagaberik gabeko artean galdutako 56.075 okupazio horiek % 27,4ko jaitsiera osatzen dute 2007-2009 aldian.

Alabaina, okupazioan berriki izandako aurrerapenaren zati bat finkatu egin da

2007-2009 biurtekoko krisialdiaren garrantzia erlatibizatu nahi izan gabe, dena den, EAEn azken aldiko okupazio-galeren eragin negatiboak ez du erabat suntsitu 1993-2007 aldiko okupazio-mailetan izandako gorakada bikaina.

1997-2007 aldiko okupazio berriaren % 89,3ri eutsi egin zaio

14. Alde batetik, 2007-2009 aldian, Euskadin galdutako okupazio-bolumena 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 10,7 baino ez da, eta 2009ko okupazio-maila 1997koa baino % 26,2 handiagoa da. Hori dela-eta, EAEn 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefiziente ¹ orokorrak oraindik ere jasotzen du 1993-2007 aldian euskal produkzio-sisteman gertatu zen ezohiko transformazioa. 2009an % 65,2ra murriztu den arren (eta 2007ko % 68,1eko gehienekoarekin alderatuta, jaitsiera handia den arren), koefizientea ez dabil 2005ekotik oso urrun (% 66,1 urte hartan). Bestalde, koefizientea 1993ko % 46,6 baino askoz ere handiagoa izateaz gain, 1997ko % 51,1 edo 2001eko % 60,5 baino handiagoa ere bada.

Okupazio-koefizientea EBko batez bestekoaren gainetik dago

15. Bestalde, EAeko okupazio-koefizientea Europar Batasuneko 27 kideen batez besteko % 64,4 baino handiagoa da. 2009an ere, EB-27 osatzen duten 16 Estatu baino posizio hobean dago Euskadi. Europar Batasun zaharraren barruan, gure okupazio-mailak hegoaldeko Estatu gehienetakoak (Espainia, Italia edo Grezia) baino handiagoak dira, baita Europako erdialdeko eta iparraldeko zenbait herrialdetakoak (Frantzia, Belgika edo Irlanda) baino handiagoak ere; eta esaterako, Finlandiarekin 3 puntu baino gutxiagoko aldea dugu.

¹ Okupazio-koefizientea zera da: adierazitako biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urteko biztanle guztiak) lan egiten ari diren biztanleek ordezkatzan duten batez bestekoa. European enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (aktibo guztiei dagokienez, landunen kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, izen hori ez da egokia, tasak ez baitu enplegu-maila neurtzen, okupazio-maila baizik. Hortaz, horregatik erabili dugu *okupazio-koefizientea* izena LMEn.

Faktore nagusia: Zerbitzu-sektoreko adar gehienek martxa ona

16. Deskribatu dugun errealitate horrek lotura handia du 2007-2009 aldira zerbitzu-sektoreko adar gehienetan izandako okupazioaren hazkunderari eustearekin. Garraio eta komunikazioen adarra kenduta, sektore horretako okupazio-maila 33.233 pertsonatan handitu da aldi horretan. Horrek esan nahi du 2007-2009 aldira biurteko hazkundera % 6,1 izan dela eta, gainera, adar horietako okupazioaren hazkunde-erritmoak handitu egin direla, 2005etik 2007ra bitarteko % 2,6arekin alderatuta². Oro har, zerbitzu-sektoreko adarretan (garraio eta komunikazioen adarra alde batera utzita) okupazioak % 44,5 gora egin du 1997tik 2009ra bitarte, azken biurtekoan prozesua finkatuz.

Ostalaritza, enpresetarako zerbitzuak eta osasuna/gizarte-zerbitzuak indartzea

17. 2005-2007 aldira bezalaxe, 2007-2009 biurtekoan okupazioaren hazkunde positiboak gertatu dira ostalaritzan, enpresetarako zerbitzuetan eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan. Hazkunde-erritmoa zertxobait txikitu da azken urteotan enpresetarako zerbitzuetan (2005-2007 aldiko % 5,4tik 2007-2009ko % 3,9ra), baina ostalaritzan eta, bereziki, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan gora egin du (lehenengoan % 5,9tik % 10,3ra, eta bigarrean % 7,1etik % 16,6ra). Azken adar horretan, 2007tik 2009ra bitarte 11.391 landun garbi berri daude; ostalaritzan 5.208 okupazio berri daude eta enpresetarako zerbitzuetan 3.704. Datu horien argitara, esan dezakegu adar horietan okupazioak epe luzera hazteko potentziala duela, bereziki, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan.

Merkataritza-zerbitzuak, finantza-erakundeak eta etxeko zerbitzua gora

18. 2007-2009 aldiko gorakadak 2005-2007 biurtekoan izandako beheranzko joera eten du zerbitzuetako beste adarretan. Hori horrela, honako adar hauek gora egin dute: merkataritzak (2005-2007 biurtekoan okupazioa % 1,9 jaitsi zen eta 2007-2009 aldira okupazioa % 5,1 hazi da), finantza-erakundeak (% -4,4tik % 12ra), bestelako merkataritza-zerbitzuak (% -11,6tik % 5,8ra) eta etxeko zerbitzuak (% -2,8tik % 1,8ra)³. Terminu absolututan, 2007-2009 aldira, okupazio garbiak gora egin du talde horretan:

² Ez da lehenengo aldira azken urteotan zerbitzu-sektorean jarduerak gora egiten duena, ekonomiaren beste sektoreetan zailtasun-egoeran dauden bitartean. 2001-2005 aldira, zerbitzu-sektorearen okupazioaren hazkundera indartu egin zen (1997-2001 aldira batez besteko urteko hazkundera % 3,5 zen eta 2001-2005 aldira % 4) eta hori ez dator bat ekonomiaren gainerako sektoreetan atzematen den joera negatiboarekin. Lehen sektorean 1997tik aurrera okupazioak behera egin zuen, eta 2001-2005 aldira industria-sektorean (urteko batez bestekoa % -0,4); jaitsiera horiekin batera, eraikuntzaren hazkunde-erritmoak ere murriztu egin ziren (urteko batez bestekoa % 5,7 zen 1997-2001 aldira eta 2001-2005 laurtekoan % 3).

³ Alabaina, horren guztiaren ondorioz okupazioa zertxobait handitu da 2005-2009 aldira osoan merkataritzan (% +3,1) eta finantza-erakundeetan (% +7), baina gainerako merkataritza-zerbitzuetan eta etxeko zerbitzuan okupazioa murriztu egin da (% -6,4 eta % -1). Dena den, horietako zenbait adarretan —eta bereziki, merkataritzarekin loturiko adarretan— azken aldiko bilakaeran 1997-2005 aldira enplegu-gorakada handia berreskuratu da.

merkataritzaren adarrean 6.615 lagun gehiago, finantza-erakundeen adarreko 2.478 okupazio berriak eta bestelako merkataritza-zerbitzuen adarreko 2.360 okupazio berriak gaindituta (437 etxeko zerbitzuan).

Administrazioaren eta hezkuntzaren geldialdia

19. Okupazioaren bilakaera ez da hain positiboa Administrazioan eta hezkuntzaren adarrean; izan ere, 2007tik 2009ra bitarte, 2005-2007 aldiko okupazio-hazkunde handiak galdu egin dira. Administrazio Publikoan, 2005-2007 aldian % 13,1eko hazkundera izan zen eta 2007-2009 biurtekoan okupazioa gelditu egin da. Hezkuntzan, 2005-2007 aldian % 8,3ko hazkundera izan zen baina 2007-2009 aldian % 1,6 baino ez zen izan, okupazioan 1.051 laguneko hazkunde garbia izanik. Enplegua sortzeari dagokionez, adar hori goiko postuetan egon zen 2007. urtera bitarte, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrekirekin batera, baina orain atzean geratu da.

Okupazioak aurrera egiten duen eremuak

Okupazioa sektore publikoan eta enplegu-emaile nahiz kooperatibisten artean

20. 2007tik 2009ra bitarte, okupazio berrien sorkuntza-eremu nagusia sektore publikoa da eta, zehazkiago, enpresa publikoa; enpresa publikoari dagokio aldi horretan sortutako mota horretako 6.812 okupazio berrien % 99,6. Soldatapeko okupazioa % 5,2 murriztu da Administrazioeko soldatapekoen artean 2005etik 2009ra bitarte, baina enpresa publikoaren okupazioak gora egin du aldi horretan, % 82,2.
21. 2007-2009 aldian okupazioaren gorakada izan duten beste kolektibo batzuk enplegu-emaileak eta kooperatibistak dira, 2.988 eta 2.429 okupazio berri dituztela, hurrenez hurren. Azken urteotan, okupazioaren hazkunde erlatibo garrantzitsua ikusi da bi kasuetan eta 2005-2007 aldiko jaitziera garrantzitsuekin kontraste egiten du. Horren ondorioz, okupazioa % 4,4 hazi da 2005-2009 laurtekoan enplegu-emaileen kasuan, 2001-2006 aldiko goranzko joera berreskuratuz⁴. Okupazio kooperatibista, ordea, 2005ekoa baino % 9 txikiagoa da oraindik ere 2009an.

⁴ Puntu honetan, enplegu-emaileak eta autonomoak batera aztertzea komeni da, bi kolektiboen artean nolabaiteko trasbasea gertatzen baita. Horrela jakatuta, egiaztatuko dugu enpresaburuen eta autonomoen biztanleria % 6,9 hazi zela 2001-2005 aldian, 1997-2001 laurtekoan % 0,8 murriztu ostean, eta 2005etik 2007ra bitarte % 5,5 jaitzi da, 2007-2009 aldiko % 8,6ko jaitzierarekin areagotuz. 2006. urtetik 2009. urtera finkatu egin den arren, joera negatibo hori suma zitekeen jada 2005etik 2006ra, okupazioa % 3 murriztuta. Datuen arabera, beraz, azken urteotan, enpresa-arloko ekimenak abiaraztearekin loturiko pertsonen okupazioan beheranzko joera izan da.

Zuzendari, teknikari eta administrariak

22. 2007-2009 aldian 25.887 zuzendari, teknikari eta administrari gehiago daude; hiru talde profesional horietan, administrarien eta zuzendarien ekarpena oso garrantzitsua da (2007-2009 biurtekoan izandako hazkundearen % 47,6 eta % 40,9, hurrenez hurren, eta gainerako % 11,6a teknikariei dagokie).

Joera positiboena administrarien okupazioari dagokio. Kasu horretan, hazkunde-erritmoak gora egin du 2007tik 2009ra bitarte, aurreko biurtekoarekin alderatuta, eta 2005-2009 laurtekoan, kolektiboaren guztirako okupazioa % 19,1 handitu da (teknikarien % 5,1 eta zuzendarien % 2,1 gaindituta; talde profesional horretan, okupazio-mailak berriz ere gora egin du 2007-2009 aldian, 2005etik 2007ra bitarte jaitziera esanguratsuak jasan ondoren).

2007-2009 aldian oraindik ere positiboa den arren, kezkarria da eremu teknikoetan enplegua sortzeko erritmoetan epe luzera atzeman den beheranzko joera, bereziki, 2005. urteaz geroztik. Hori horrela izanik, okupazio tekniko berriak sortzeko urteko batez besteko erritmoa % 5,4 zen 1997tik 2005era bitarte, baina zenbateko hori % 1,3ra murriztu da 2005-2009 aldian.

Okupazio mugagabea

23. 2006tik 2007ra bitarte 617.101 enplegu izatetik 602.035 enplegu izatera murriztu ondoren, 2007-2009 aldian enplegu mugagabeak berriz ere gora egin du. Kontratu mugagabea duten soldatapekoak 641.041 dira 2009. urtean. Horrek esan nahi du 2007. urtearekin alderatuta % 6,5eko hazkundera gertatu dela, eta 39.006 okupazioko okupazio-irabazi garbia.

Aldi baterakotasuna murriztea epe luzera

24. 2006-2007 aldian ikusitakoa alde batera utzita⁵, soldatapeko okupazio mugagabea finkatzeko joera errealitatea da epe luzera, 1997-2009 aldian gora egin baitu okupazio mota horrek, % 71,4. Aldiz, aldi baterako kontratua edo kontraturik ez duten soldatapekoen okupazioak % 26,9 behera egin du aldi horretan. Kontratu-egoera horretan dagoen biztanleriaren bolumenak eusteko joera du 1997tik 2007ra bitarte, baina aipatu dugun jaitziera hori, batik bat, 2007-2009 aldiko krisiaren ondorioa da.

⁵ Aldi horretan aldi baterako kontratazioak gora egin du. Alabaina, enplegua sortzeko erritmo gorakorrari eusten dioten okupazio-sektoreekin loturik dagoen heinean, gorakada hori krisiari aurre egiteko anean uneko neurritzat har dezakegu, aldi baterako kontratuak arian-arian mugagabe bihurtzeko azpiko prozesua eteteko erabakitze baina gehiago.

Kontratazio ez-mugagabearen garrantzi kuantitatiboaren murrizketa deigarria da termino erlatibotan. Soldatapekoen artean, mugagabea ez den enpleguaren proportzioa guztirakoaren % 35,3 izatera heldu zen 1997an, eta 2001-2003 aldian % 29 ingurura; baina 2005ean % 26,1eko mailaraino jaitsi zen, hain zuzen ere 1993. urteko maila (% 26,3) baino bi hamarren gutxiago. 2006. urtean, ordea, aurrerapen garrantzitsua gertatu zen, proportzioa % 22,7ra iritsita. Hala ere, aurrerapen horiek bertan behera geratu ziren 2006tik 2007ra bitarte, aztertutako proportzioa % 25,4ra itzuli baitzen. Baina krisiak behin-behineko biztanleengan eragin nabarmena izan duenez —kontratazio mugagabearen gorakadarekin loturik—, 2009. urtean adierazlea % 18,8ra murriztu da bat-batean, 2007an baino 6,5 puntu gutxiago.

Okupazio jarraituaren adierazleek maila handiari eusten diote

25. Enplegu mugagabea finkatu denez, 2009ko laugarren hiruhilekoaren aurreko hamabi hilabeteetan okupazio jarraitua izan duten 16-64 urteko biztanleen kopurua handia da oraindik ere, guztirakoaren % 59,4 izanik. Zenbateko horrek 1,5 puntuko jaitsiera gertatu dela esan nahi du, 2007ko % 60,9ari dagokionez⁶, baina krisia gorabehera, 2005eko % 57,8 eta 2006ko % 58,6 baino gorago dago oraindik ere. Gainera, 2001-2003 aldiko zenbatekoen oso gainetik ere badago (% 52,3 2001ean eta % 53,6tik % 53,7ra bitarte 2002an eta 2003an).

⁶ 2007-2009 aldian 16-64 urtekoen artean hazkundera nagusi den testuinguruan (% +1,8), beheranzko joera hori honako honen ondorioa da: 2007. urtearekin alderatuta, urte osoan modu jarraituan landun izan zirenen zenbateko absolutua % 0,8 murriztu izanaren ondorioa.

Sexuaren eta adinaren araberako aldaketen ondorioak

Gizonen eta gazteen posizioa beheratzea

Gizonak

26. 2006-2007 aldian okupazio-maila egonkortu egin zen baina 2007. urtetik 2009. urtera bitarte behera egin zuen gizonen artean, % 7,3. Azken aldiko okupazio-galerak erabakigarriak dira, gizonetzkoen artean 1997-2007 aldian izandako okupazio-gorakadaren % 49,3ra iristen baitira. Praktikan, gizonen okupazioaren datuak 2001-2003 aldiko zifren antzekoak dira, gizonetan enplegu-maila egonkortuta zegoela. 1997. urtearekin alderatuta, gaur egungo gizonen okupazioan % 8,8ko hazkundea baino ez da gertatu.

35 urtetik beherakoak

27. 35 urtetik beherakoen artean okupazioari buruzko datuak jaitsi egin ziren 2005-2007 aldian, baina krisiaren eraginez, murrizketaren erritmoa areagotu egin zen. 25 urtetik beherakoen kasuan, 2005-2007 aldian okupazio-galera % 9,7 zen eta 2007-2009 aldian % 22,5era igo da; 25-34 urtekoen kasuan, lehenengo biurtekoan jaitsiera % 1,8 baino ez zen izan, baina bigarrenean % 10,8ra igo da. Oro har, 25-34 urtekoen kasuan, 2005eko okupazioaren % 12,4 galdu dute 2009. urtean, eta proportzio hori % 30era iristen da 25 urtetik beherakoen artean.

25-34 urtekoetan okupazioaren jaitsiera fenomeno berria da, 2005. urteaz geroztikakoa, baina 25 urtetik beherakoetan okupazioaren beheranzko joera mendearen hasierako urtetan hasi zen, 2002. urteaz geroztik areagotu dela. 1997. urtea erreferentziatzat hartuta, 2009. urteko okupazioa % 31,3 txikiagoa da 25 urtetik beherakoen kasuan, eta 25-34 urtekoen artean, 2009ko okupazioa 1997koaren % 6,8 gaintik dago oraindik ere.

Hala ere, 25-34 urtekoek okupazioaren jaitsieran izan duten garrantzia da kezka gehien eragiten duen joera. Adin-talde horretan, 2001-2005 aldian okupazioak gora egin zuen oraindik, baina 2005-2007 aldian eta 2007-2009 aldian, 35 urtetik beherako guztien okupazio-jaitsieraren % 43 osatzera iritsi da.

Okupazioak aurrera emakumeen eta adinekoen kasuetan

Emakumeak

28. Gizonen kasuan ez bezala, 2007-2009 aldian okupazioaren hazkundeari eutsi egin zaio emakumeen artean, eta ikus dezakegunez, 2006. urtetik aurrera, EAEn sortzen den okupazio berria emakumeei dagokie. Gainera, aldi horretako okupazio-bolumenaren hazkundera nabarmena da (% 4,3). 1997-2005 aldiko % 4,7 baino txikiagoa den arren, ehuneko horrek zera adierazten du, emakumeen okupazioa urtean % 2,1 hazi dela batez beste, 2005-2007 aldian bezainbeste. Hortaz, emakumeen artean okupazioaren hazkunde handia luzatu egiten da, eta 1997-2009 aldian, okupazio-maila % 57,6 handitu da.

35 urtetik gorakoak eta, bereziki, 50 urte edo hortik gorakoak

29. Gazteagoen artean ikusitakoari kontra eginez, 2007tik 2009ra bitarte okupazioaren hazkundeari eutsi egin zaio 35 urtetik gorakoen artean. Hazkunde deigarriena 50 urtetik gorakoei dagokie; izan ere, talde horretan, okupazioa % 8,5 handitu da biurtekoan, 2005-2007 aldiko % 6,1 ere gaindituta. 35-49 urtekoen kasuan ere, okupazioaren bolumena % 0,3 hobetu da. Kasu horretan, ordea, 2005-2007 aldiko % 5,6ko hazkundearekin alderatuta jaitsiera nabarmena gertatu da, baina azken aldiko gorakadari esker, okupazioaren zifrak egonkortzen ari direla esan dezakegu. Hala ere, 35-49 urtekoen kasuan, okupazio-bolumena % 37,6 handitu da 1997tik 2009ra bitarte, eta proportzio hori % 60,4ra iristen da 50 urtetik gorakoen kasuan.

Azken urteotan goranzko joera izan dutelarik, 50 urtetik gorakoen artean enpleguaren eginkizuna funtsezkoa da, nolahi ere: 2003-2005 aldian okupazio berrien % 16,1 osatzen zuten, baina okupazioari dagokionez gorakada izan duten taldeen artean, 2005-2007 aldian kolektibo horrek okupazio berrien % 36,3 osatu zuen, eta 2007-2009 biurtekoan, aldiz, % 93,8.

Bilakaeraren kontrastea 35 urtetik gorako emakumeen eta 35 urtetik beherako gizonen artean

30. Okupazioaren hazkundeak, oro har, emakumeei eta 35 urtetik gorakoei eragiten die baina 2007-2009 aldian, hazkunde hori 35 urtetik gorako emakumeetan baino ez da gertatu. Sexuaren eta adinaren arabera, goranzko joera duten taldeetan izandako 29.317 okupazioko hazkundearen % 95,1 dagokie 35 urtetik gorako emakumeei (50 urtetik gorako gizonak ere barnean hartuta, aldi horretan).

Aldiz, 2007tik 2009ra bitarte, okupazioak behera egin du 35 urtetik beherako talde guztietan, baita 35-49 urteko gizonen kasuan ere, guztira 53.016 okupazio galdu direla.

Horietatik % 62,6 (33.192 kasu) 35 urtetik beherako gizonei dagokio, adin horretako emakumeen % 19,6 eta 35-49 urteko gizonen % 17,8 gaindituta.

35 urtetik beherako gizonen okupazio-arazoa kezkatzeko modukoa da, 2001. urteaz geroztik okupazioak behera egin baitu etengabe, 2001etik 2009ra bitarte % 21,1 murriztuz. Jaitsiera hori adin-talde bereko emakumeen % 4,5eko jaitsiera baino handiagoa da, emakumeen kasuan 2006. urtetik aurrera soilik baita negatiboa bilakaera. Azken aldian jaitsiera izan den arren, 35-49 urteko gizonen kasuan, 2009ko okupazioa 2001. urtekoa baino % 9,7 handiagoa da, eta proportzio hori % 14,3ra iristen da 50 urtetik gorako gizonen kasuan, nahiz eta 2005. urtetik aurrera talde horretako okupazio-maila egonkortu egin den. Okupazio-hazkunde esanguratsuak 35 urtetik gorako emakumeen taldean soilik ikus daitezke epe luzera, 2001-2009 aldian okupazioa % 50,5 handitu baita talde horretan.

Arazo espezifikoak: okupazioa goi-mailako teknologiko sektoreetan

31. 2007. urtetik 2009. urtera bitarte, goi-mailako kualifikazioko sektoreetan okupazioaren goranzko joerari eutsi egin zaio eta % 2,6 hazi da 2007-2009 aldian. Bilakaera hori ez dator bat gainerako sektoreetan izan den % 5,7ko okupazio-galerarekin, baina goi-mailako kualifikazioko sektoreetan okupazioaren hazkunde-erritmoa mantsotzea eragin du, 2005-2007 biurtekoko % 5eko erritmoarekin alderatuta; horrek esan nahi du 1997. urteaz geroztik sektore horietan izandako okupazioaren hazkunde-erritmoen jaitsiera berretsi egiten dela (1997-2001 aldian hazkunde-erritmoa urtean batez beste % 4,6 zen, 2001-2005 aldian % 3,8, 2005-2007 aldian % 2,5, eta 2007-2009 aldian % 1,3).

Alabaina, 2007-2009 biurtekoko mantsotzea ezin zaie leporatu goi-mailako prestakuntzarekin edo goi-mailako intentsitate kognitibokotzat jotako prestakuntzarekin loturiko eremuei, 2007-2009 aldian % 6,6ko hazkundera izan baitzuten landun kopuruari dagokionez, aurreko aldietako goranzko joerari eutsiz. Aldiz, goi-mailako teknologiko sektoreetan okupazioak izan duen % 1,5eko jaitsierarekin loturik dagoela esan dezakegu.

Goi-mailako teknologiko sektoreetan enpleguak azken aldian izan duen bilakaera kezkatzeko modukoa da, 2005etik 2007ra bitarte itxuraz okupazio mota horren gorakada zena (% 6,7ko hazkundera) eten baita. Alabaina, sektore horietako okupazioan 2001. urtetik aurrera izan zen joera-aldaketa garrantzitsua itzuli da berriro ere. Hori horrela izanik, 1993-2001 aldian EAEko okupazioaren hazkunde-prozesuaren buru izan ostean, 2001etik 2005era bitarte, goi-teknologiko sektoreetan % 0,3ko okupazio-jaitsiera gertatu zen, aurreko laurtekoetako % 25etik gorako hazkunderarekin alderatuta. Industriako enpleguaren bilakaeraren ildoari jarraiki, goi-teknologiko sektoreetako okupazioa soilik % 4,8 handiagoa da 2009an 2001ean baino, EAEko goi-mailako kualifikazioko sektoreetan, oro har, ikusten den % 25aren azpitik.

32. Goi-teknologiako sektoreen bilakaera negatiboa den arren, goi-mailako kualifikazioko sektoreek gero eta garrantzi handiagoa dute okupazio berria sortzeari dagokionez. Sektore horiek okupazio-hazkunderari egiten dioten ekarpena okupazio berri garbiaren % 46,9 zen 1997. urtetik 2001. urtera bitarte; 2001-2005 aldian % 58,2 eta 2005-2007 biurtekoan % 80,9. Kualifikazio-maila txikiagoko okupazioak behera egin duenez, EAeko okupazioa, oro har, jaitsi egin da 2007tik 2009ra bitarte, baina goi-mailako kualifikazioko sektoreetan okupazio berri garbia sortzen jarraitu dute aldi horretan, betiere goi-mailako teknologiako sektoreetan okupazioari buruz aipatutako xehetasunak alde batera utzi gabe.

Egungo okupazioaren beste zenbait ezaugarri

Lanaldi partzialak eta enplegu-aniztasunak garrantzi txikia dute

Lanaldi partzialeko lanaren eragin mugatua

33. 2003tik aurrera goranzko joerari eutsi egin zaion arren, lanaldi partzialeko enpleguaren eragina mugatua da oraindik ere EAEn. Inkesta egin zen astean ordutegi normalizatua bete zuten soldatapekoak erreferentziatzat hartuta, lanaldi partzian lanean ari diren soldatapekoen proportzioa % 12,4tik % 13,6ra igo da 2007-2009 aldian, eta azken urte horretan 1997. urtean lortutako maila gorena gainditu ere egin da (% 12,6).

Enplegu-aniztasunaren eragina marjinala da baina gorantz doa

34. Euskadin, lanaldi partzialeko lanaren garrantzia mugatua da eta enplegu-aniztasunaren fenomenoak EAEn duen garrantzi txikiarekin loturik dago. LMEren datuen argitara, 16-64 urteko landunen % 1,4 soilik hartzen du eraginpean arazo horrek. Eragina askoz ere txikiagoa den arren, zenbateko hori bat dator 2008ko Lan Baldintzei buruzko Inkestarekin, bietan fenomeno horren bilakaeran goranzko joera sumatzen baita. LMEren arabera, euskal soldatapekoen artean enplegu-aniztasunaren eragina 2005eko eta 2006ko % 0,8tik 2009ko % 1,5era igo da⁷.

⁷ 2008-9ko LBIren arabera, EAeko soldatapekoen artean enplegu-aniztasunaren eragina handitu egin da, 2004ko % 2,2tik 2009ko % 3,4ra.

LANGABEZIARI BURUZKO ALDERDIK ETAN ENPLEGUA BILATZEKO GAINERAKO EGOERAK

Langabeziaren gorakada

35. Okupazioaren gainbeheraren ondorio nagusia langabezia da, fenomeno masibo moduan; 2007-2009 aldiko lan-merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia horixe da, hain zuzen, langabezia. BJAren metodologia eta elebazioaren arabera, 2009. urtearen amaieran EAEn guztira 90.400 langabe daude, 2007an baino 59.000 gehiago. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 8,7 da⁸.

Mende hasierako mailetara itzultzea

36. 2009ko datuak ikusita, 1997-2007 aldian EAEn izan zen langabezia murrizteko prozesua nabarmen eta bat-batean eten da. Aldi horretan, langabeen kopurua 1997ko 190.885etik 2001eko 95.085era jaitsi zen, 2005eko 49.100era eta 2007ko 31.400era. Aitzitik, bi urte eskasean, langabeziari buruzko datuak mende hasierako mailetara hurbildu dira, 2002. urteko 88.012 langabe kopurua zertxobait gaindituz.

Langabezia-tasari dagokionez, bilakaera ere antzekoa da. 1997. urtean % 20,3tik 2001ean % 9,9ra jaitsi zen, 2005ean % 4,9ra, eta 2007an % 3,1era, baina langabezia-tasa berriz ere % 8,7ra igo da 2009an, bi urte lehenago baino 5,6 puntu gehiago. Langabezia-tasa 2003. urteko mailara gerturatu da, urte hartan % 8,9 baitzen⁹.

Okupazio-jaitsieraren eta jarduera-igoeraren baterako eragina

37. Dena den, okupazioaren jaitsiera ez da izan Euskadiko langabezia zenbatekoak handitzen lagundu duen faktore bakarra. Jarraian azalduko dugunez, EAEn 2007-2009 biurtekoan langabeziak izandako igoeraren zati bat baino ez dago zuzenean loturik okupazioaren jaitsierarekin. Gainerakoa jarduera-tasaren hazkundearekin loturik dago, baita, erreferentziako biurtekoan Euskadin 16-64 urteko biztanleriak izan zuen hazkundearen ondorioz, pertsona aktiboaren kopuruan izandako eraginarekin ere.

⁸ 16-64 urtekoei dagokionez, horrek esan nahi du biztanleria guztiaren % 6,2 langabezian dagoela adin horietan.

⁹ BJA metodologia zaharreko daturik ez dagoen arren, BJA metodo originalaren arabera, langabezia 113.643 lagun ingurukoa da 2009an; hortaz, langabezia-tasa % 10,7 inguru izango litzateke, 2001. urteko % 9,9 gaindituta.

Okupazio-jaitsieraren efektua

38. EAEn langabeziak gora egin du 2007tik 2009ra bitarte, hein batean, enpleguak behera egin duelako 23.698 okupazio garbi galduta. Galera horiek, ordea, % 40,2 baino ez dute osatzen, erreferentziako biurtekoan langabeziaren zenbatekoetan ikusitako hazkundeari dagokionez.

Jarduera-igoeraren efektua

39. Euskadiko langabeziaren hazkundearen % 59,8 biztanleria aktiboaren bolumen-gorakadarekin loturik dago EAEn 2007-2009 biurtekoan. 16-64 urteko biztanleria aktiboa % 3,5 handitu da aldi horretan, 2005etik 2007ra bitarte soilik % 0,5 handitu ostean.

Jarduera-tasen hazkundera

40. Aipatu dugun aldaketa hori, hein batean, jarduera-tasen gorakada nabarmenarekin loturik dago. 2006an eta 2007an jarduera-tasak gora egin zuen % 69,6tik % 70,3ra, nahiz eta 2003-2005 aldian geldialdia izan zuen; hala ere, 2009an historia osoko mailarik handiena lortu du tasak, % 71,5era iritsita. 2007tik 2009ra bitarte jarduera handitzearen ondorioz, langabeziak gora egin du 17.039 pertsonatan (guztirakoaren % 28,9).

Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren gorakada

41. Jardueraren hazkundearen beste zati garrantzitsu bat adin aktiboan (16-64 urte) dagoen biztanleriaren gorakadarekin loturik dago. 1997-2007 aldiko beheranzko joerari aurka eginez (adin aktiboan dagoen biztanleria % 2,9 murriztu zen aldi horretan), LMEn datuen arabera, 2007-2009 aldian biztanleria horrek gora egin zuen. EAEn 16-64 urteko biztanleria % 1,8 handitu da biurteko horretan, 2007. urtean 1.425.959 pertsona izatetik 2009an 1.451.941 pertsona izatera. Adin aktiboan dagoen biztanleriaren hazkundearen efektua langabezia handitzea da, 18.263 pertsonatan (guztirakoaren % 31)¹⁰.

Faktoreen arteko lotura

42. Esan behar dugu jardueraren gorakada ziurrenik egoeraren arabera dela eta, hein batean, okupazioaren jaitsierarekin eta krisiarekin loturik dagoela. 2007-2009 aldian biztanleria aktiboaren hazkundera asko areagotu delako izan daiteke, urteko batez besteko erritmoa % 1,7 baita, 2002-2006 aldiko % 0,6 gaindituta. Gaur egungo hazkundera 2001-2003 biurteko hazkundearekin baino ezin da alderatu, % 1,3ko urteko batez besteko hazkundera izan baitzen okupazioaren hazkunde-erritmoa mantsotu zen garai hartan, betiere industria-sektorean enplegua egonkortzearekin loturik.

¹⁰ 16-64 urteko biztanleriaren bolumen-hazkundearekin loturiko jarduera-zenbatekoen igoera kalkulatu da, kalkulaturako igoerari EAEn 2009. urteko batez besteko jarduera-tasa aplikatuta.

Enplegu berriaren hasteko prest dagoen biztanleriaren bolumena aldi berean haztea

43. Jakin badakigu EAeko lan-merkatuan lan-indarraren eskaintza ez dagokiela soilik langabeei (betiere Eurostat/BJA metodoa aplikatuta langabetzat sailkatutakoak). 2009. urteko laugarren hiruhilekoan, EAEn lan berri batean hasteko prest dauden 16-64 urtekoen kopurua 148.353 da; horietatik % 60 langabeak dira, % 24,3 beste lan bat bilatzen ari diren landunak eta % 15,7 Eurostat/BJA metodologia aplikatuta ez-aktibotzat hartutakoak, baina okupazio batean hasteko prest daudenak¹¹. Horrek esan nahi du 2007. urtearekin alderatuta 77.207 pertsona gehiago dagoela enplegurako prest. Prestasun-tasari dagokionez, Euskadin, 16-64 urteko biztanleriaren % 10,2 lan berri batean hasteko prest dago.

Zenbateko absolutu nahiz erlatibotan, zenbateko horiek hamarkada osoko handienak dira, 2002. urteko maila gorenak gaindituta. Urte hartan, enplegu berri batean hasteko prest zeudenak 140.552 ziren, 16-64 urteko biztanleriaren % 9,9.

Langabeziaren profil ezberdina EAEn

Euskadin, langabeziaren egiturazko hainbat ezaugarri ez dira aldatu, bereziki, adinaren araberrako eraginari dagozkionak, baina hala ere, azken aldiko aldaketen ondorioz langabeen kolektiboak irudi berria du. Gaur egun, langabe gehienak gizonezkoak dira.

¹¹ Lanean hasteko prest dagoen kolektiboari dagokionez, honako alderdi hauek kontuan izan behar dira:

- * Langabezian egonda baina lan berri batean hasiko direla hitzartuta duten langabeak ez dira aintzat hartu.
- * Beste lan bat bilatzen ari diren landunak barnean hartu dira, baina soilik gehienez ere 15 eguneko epean beste lan horretan hasteko prest baldin badaude.
- * Enplegurako prest dauden ez-aktiboak ere barnean hartu dira. Langabeen oinarriko ezaugarriak betetzen dituzte eta, zenbait kasutan, Enplegu Zerbitzu Publiko ofizialean izena emanda ere egon daitezke, baina ez dute lana bilatzeko gestiorik egin, eta Eurostat/BJA metodologia aplikatuz, ezin dira langabetzat hartu.

Langabezia bereziki gizonezkoena

44. 2009. urtean, 1993-2007 aldian ez bezala, langabeen kolektiboan gehienak gizonak dira (guztirakoaren % 58,7). Azken urteotan, gizonen eta emakumeen langabezia-tasak hurbiltzeko joera zegoen, eta horretaz gain, krisiak eragin diferentzial handiagoa izan du gizonen artean, 2007-2009 biurtekoan langabeziaren hazkunde garbiaren % 66,1 baitagokie. Horren guztiaren ondorioz, 1993. urteaz geroztik lehen aldiz, 2009ko laugarren hiruhilekoan, gizonezkoen langabezia-tasa emakumeena baino handiagoa da, puntu bat baino gehiago: % 9,2 gizonen artean, eta % 8,1 emakumeen artean.
45. Diferentzial hori are handiagoa izango litzateke baldin eta jardueraren gorakadak ez balu emakumeen langabezia-tasa igoarazi, 2007-2009 aldian emakumezko biztanleria aktiboa % 8,9 handituz (gizonen kasuan, aldiz, % 0,4ko jaitsiera izan da). Lehen ere esan dugunez, zenbateko garbietan, okupazio-krisiak, egiaz, gizonezkoei baino ez die eragiten (gizonen artean okupazioa % 7,3 murriztu da 2007tik 2009ra bitarte, eta emakumeen artean % 4,3 handitu da).

20-39 urtekoen artean eta, hein txikiagoan, 40-59 urtekoen artean metatuta.

46. Termino erlatibotan, langabeziaren eragin nabarmenena 20 urtetik beherakoei dagokie oraindik ere, % 25,1eko langabezia-tasa baitute, 2007ko % 8,4 baino askoz ere handiagoa. 20-24 urtekoen kasuan, % 20ko mugaren gainetik dago oraindik tasa, % 22,5era iristen baita, 2007ko % 7,9ko maila ia hirukoiztuz.

Langabezia-tasetan ere gorakada nabarmena ikus daiteke 2007tik 2009ra bitarte 25 urtetik gorakoen artean; azken urtean, 25-34 urtekoek % 10aren muga gainditu dute (% 13,3, 2007an % 4,7 izanik 25-29 urtekoen artean; % 11,4, 2007an % 3,5 izanik 30-34 urtekoen artean). Zertxobait txikiagoa den arren, 35-39 urtekoen langabezia-tasa % 10aren inguruan dabil: % 8,5 da, 2007ko % 2,6 erraz gaindituta.

Azken aldiko gorakaderek eragina izan dute, halaber, 40-59 urtekoen artean, % 5 inguruko langabezia-mailara hurbilduz berriro ere (55-59 urtekoen artean % 4,7) eta 40-54 urtekoen artean maila hori gainditu ere egiten dute. Hala ere, kasu horretan bost urteko talde bakoitzean zenbatekoak % 5,2tik % 5,9ra bitartekoak dira, EAEko batez bestekoarekin alderatuta (% 8,7) txikiak diren arren.

47. Langabezia zenbatekoen banaketa aztertuz gero, langabezia-egoera gehienak gazteen taldeetan biltzen dira, baina ez nahitaez gazteenen artean. Praktikan, arazo horren muin nagusia 20-39 urtekoetan biltzen da. Langabezia-egoeren % 67,2 osatzen dute (% 52,1 soilik 20-34 urtekoen kolektiboa aintzat hartuz gero). 40-54 urtekoek ere zati garrantzitsua osatzen dute, guztirakoaren % 25,3 baitira. Gainerako % 7,5a 55-64 urtekoek (% 6,2) edo 20 urtetik beherakoek (% 1,4) dagokie.

Lan-esperientzia badutenak

48. Hamar langabetatik bederatzik baino gehiagok (% 94,9k) lan-esperientiaren bat izan du egungo langabezia-egoeran egon aurretik. Hortaz, produkzio-sisteman sartu aurretik esperientzia motaren bat duen langabezia eredia da, funtsean.

Iraupen laburrekoa oraindik

49. Krisia gorabehera, langabeen artean iraupen laburreko langabezia da nagusi. Ildo beretik, langabeen % 65,5ek urtebete baino gutxiago darama langabezia-egoeran.

Enpleguarekin kontaktuan dauden pertsonen proportzio handiarekin loturik

50. Errealitate hori lan-merkatuaren datu nabarmen batekin loturik dago: 2009. urtean, EAEko 16-64 urtekoen % 71,1ek enpleguarekin kontakturen bat izan du azken urtean. Krisia egon arren, proportzio hori 2006koaren eta 2007koaren hamarren batzuk baino ez da txikiagoa (% 71,4 eta % 71,9, hurrenez hurren). 2001eko % 64,3 baino askoz ere handiagoa da, eta urte horretatik aurrera, adierazleak gora eta gora egiten du, 2007ko maila gorenera iritsi arte.

Izan ere, 2009. urtearen amaierako langabeen % 47k enpleguarekin kontakturen bat izan du azken urtean, 2007ko % 46,4 gaindituta. Horrek esan nahi du Euskadin lan-mugikortasunaren dinamika garrantzitsua dela oraindik, langabeak produkzio-sisteman txertatzeko ehunekoak 2001eko % 35,3 eta 2002ko % 40,9 baino handiagoak baitira.

Luzaroko langabeziaren gorakadaren testuinguruan

51. 2006. urteaz geroztik, ordea, luzaroko langabeziak gora egin du. Langabezia-egoeran urtebete edo gehiago daramaten langabeak 10.360 ziren 2006an, 2007an 11.554 eta 2009an 29.852.

Krisiaren eraginez iraupen laburreko langabezia gehiago handitu den arren (2007tik 2009ra bitarte luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboa murriztu egin da, 2007ko guztirakoaren % 36,8tik 2009ko % 33ra), langabezia mota horren gorakada aintzat hartzeko modukoa da. 2007-2009 aldian hazkunde absolutu garrantzitsua izan zen eta horrekin loturik dago aldi horretan oso luzaroko langabeziaren (bi urtetik gorakoa) igoera esanguratsua. 2007an gutxieneko mailara iritsi zen 5.290 pertsonarekin, baina bi urte baino gehiago langabezian daramaten langabeen kopurua lehen aldiz nabarmen handitu da azken hamarkadan, 2009an 11.516 langabe izanik.

Etsia hartutako ez-aktiboen kolektiboaren hazkundera

52. Luzaroko eta oso luzaroko langabeziaren goranzko joerarekin batera, etsia hartutako ez-aktiboen kolektiboa modu esanguratsuan handitu da, hau da, enplegua bilatzeari utzi diotenak, okupaziorik lortu ezin izango dutela pentsatzen dutelako. Egoera horretan daudenak 4.738 ziren 2007an eta 2009an, aldiz, 14.649.

Enplegua eskuratzeko eskakizunak gutxitu egin dira

53. LMEn honako faktore hauek aipatzen dira langabeak enpleguan hasteko muga nagusitzat: etxebizitzaz aldatzeko, diru-sarrerak eta kategoria espero zirenak baino txikiagoak izateko, eta denbora partzalean lan egiteko prest ez egotea. Horrekin loturik, krisiaren ondorioz eskakizun horiei uko egiteko prest dauden langabeen proportzioa asko handitu da, 2007an erreferentziako biztanleriaren % 13,6 izatetik 2009an % 27,5 izatera iritsita.
54. 2007ko % 75,8tik nabarmen murriztu den arren (baita 2005eko eta 2006ko % 65 inguruko zenbatekoetatik ere), mugigarritasun geografikoaren mugak aipatzen dituzten langabeen proportzioa gehiengoa da. 2009an, langabezian daudenen % 59,8k uko egingo lioke enplegu-eskaintza bati bizilekua aldatu behar izango balu. Hori horrela dela, Euskadin lan-merkatua tokian tokikoa dela esan dezakegu; izan ere, langabe gehienek gehienez ere Lurralde Historikoaren esparruan lortu nahiko lukete lana (2009an % 70,2).

55. Aldiz, langabeen artean gutxiengoa dira soldatarekin, kualifikazioarekin edo lanaldi osoa izatearekin loturiko eskakizunak lehenesten dituztenak. Langabeen % 61,7k bere kualifikazioari dagokion soldata edo lanbide-kategoria txikiagoko enplegua onartuko luke, baita lanaldi partzialeko enplegua ere.

Kualifikazioari, adinari eta familia-kargei lotutako mugak

56. Nolanahi ere, langabeek eragozpen ugari gainditu behar dituzte enplegua lortzeko. Langabeen % 85,3k adierazi du enplegu berria lortzeko arazo objektiboren bat izan duela 2009an. Arazo nagusiak kualifikazioari loturikoak dira; arazo horiek langabeen % 60,4k aipatu ditu. Behar besteko lan-esperientziarik ez izatea aipatu du langabeen % 28,6k; eta lortutako prestakuntza-mailari dagokionez, proportzioa % 34,9 da. Hizkuntzak jakitea aipatu du kolektiboaren % 23,7k.
57. Ikasketei eta lan-esperientziari loturiko problematika multzoetatik oso urrun, adinaren kontua agertu da; arazo hori aipatu du lana bilatzen ari direnen % 19,2k. Arazo hori aipatu duten langabeen % 76,2k 40 urte edo gehiago ditu. Izan ere, adin horretatik aurrera nabarmen hazten da arazo hori lana bilatzeko eragozpen gisa aipatzen duten langabeen proportzioa (% 25etik gorako proportzioa da). 50 urtetik gorakoen kasuan, langabe gehienek nabarmendu dute muga hori oso garrantzitsua dela okupazio berria lortzeko.
58. Sexuarekin edo familia-kargak izatearekin loturiko eragozpenak dituzte langabeen % 13,8k. Sexua, berez, langabeen % 2,6k baino ez du aipatu, baina familia-kargei dagokienez, proportzioa % 11,6ra igotzen da.

Sexuarekin eta familia-kargak izatearekin loturiko arazoek emakumeei, batez ere, eragiten diete. Emakume langabeen % 22,3k aipatu ditu arazo horiek lana lortzeko eragozpen gisa, eta proportzio hori % 7,9ra jaisten da gizon langabeetan. 12 urtera bitarteko seme-alabak izatea funtsezkoa da testuinguru horretan: generoarekin eta familia-kargekin loturiko arazoak dituztela dioten emakume langabeen proportzioa % 11,8 da seme-alabarik gabeko emakumeetan, eta seme-alabak dituztenen kasuan, aldiz, proportzio hori % 45,4ra igotzen da. Ezkonduta egoteak ere arazoak areagotu egiten ditu; izan ere, seme-alabarik gabekoei dagokienez, ezkongabeen artean muga horiek aipatu dituzte % 9,5ek eta ezkongaduen artean % 18,2k. Aldiz, seme-alabarik izanez gero, proportzioak % 37,5 eta % 49,9 dira, hurrenez hurren.

OKUPAZIO EGOERA SEXUAREN ARABERA

Okupazio-aldagaien bilakaera hobea izan da emakumeen artean, generoaren araberako berdintze-prozesuen mesederako

Epe luzera begira, azken aldiko bilakaerari erreparatuta, sexuaren araberako okupazio-aldagaietan portaera ezberdina izan da, emakumeen mesederako. Bereziki, emakumeen okupazioak gora egin du 2007tik 2009ra bitarte, eta gizonezkoen artean beherakada izan da. Egoera horren ondorio nagusia zera da, lehen aldiz, gizonen kalterako desoreka-egoera sortu dela, 2009an gizonezkoen langabezia-tasa handiagoa izanik. Hala eta guztiz ere, jarduera eta okupazioa eskuratzeari dagokionez, emakumeen kalterako alde garrantzitsuak daude oraindik ere.

Langabezia-adierazleetan posizio hobea

59. Lan-merkatuan emakumearen posizio-aldaketa hobekien adierazten duen adierazlea langabezia-tasa da. Emakumeen langabezia-tasa gizonen ia bikoitza zen 2003. urtean ere, emakumeen eta gizonen tasen artean 4,6 puntuko aldea zegoela (% 11,5 eta % 6,9, hurrenez hurren), baina diferentziala 2,2 puntura murriztu zen 2005ean (% 6,2 emakumeena eta gizonena, aldiz, % 4) eta 1,7ra 2007an (% 4,1 eta % 2,4, hurrenez hurren). Emakumeen jardueran hazkunde handia izatearen ondorioz langabezia-tasek gora egin zuten arren, emakumeek askoz ere hobeto egin diete aurre 2007-2009 aldiko krisialdiari, okupazio-mailak handitzea ere lortu baitute. Horren guztiaren ondorioz, azken urtean langabezia-tasa gizonena baino txikiago da (% 8,1 emakumeak eta % 9,2 gizonak).
60. 2007-2009 biurtekoan izandako aldaketa nabarmena da, halaber, lan-merkatuaren prestasun-tasa aintzat hartuta ere, hau da, 16-64 urtekoen artean —eta jarduerari dagokionez euren estatistika-posizioa alde batera utzita—, enplegu berri batean berehala hasteko prest daudenen proportzioa. Kasu horretan ere, lehen aldiz emakumeen tasa txikiagoa da gizonena baino (% 9,7 emakumeak eta % 10,7 gizonak).

Jarduera-tasetan eta okupazio-koefizienteetan alde garrantzitsuak, baina gero eta txikiagoak

Jarduera-tasak

61. Lehen ere esan dugunez, jarduera-adierazleen bilakaera emakumeen aldekoa da 2007. urtetik 2009. urtera bitarte, gizonen kontrako dinamika izan dutela. Gizonezkoen kasuan, azken urteotan finkatu egin da 2002-2007 aldian indartzen hasi zen aldaketa eta ordura arte jarduerarako goranzko joera eten egin zen, jarduera-tasa 2007ko % 80,5etik 2009ko % 78,9ra murriztuz. Aktibo-bolumenaren jaitsiera 2005-2007 aldira ere aurrera daiteke gizonen artean, eta 2007-2009an finkatu egin da. Oro har, gizonezko aktiboen zenbatekoa % 1 murriztu da 2005. urtetik 2009. urtera bitarte.

Aitzitik, emakume aktiboen kopurua % 11,1 handitu da 2005-2009 aldian. Horren funtsezko arrazoia zera da, 2007-2009 biurtekoan, emakumeen biztanleria aktiboak izandako bilakaera ezin hobea, % 8,9 handitu baita, 2003-2005 aldiko egonkortzea eta 2005-2007 aldiko % 2ko hazkunde bikaina gaindituta. 2003tik 2005era bitarte % 59tik % 58,4ra murriztu zen emakumeen jarduera-tasa, eta 2007an % 59,9ra iritsi zen; hurrengo bi urteetan 4 puntu gora egin zuen, 2009ko amaieran % 63,9ko mailara iritsita.

Horren ondorioz, gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera-tasen arteko diferentziala nabarmen murriztu da. 1997-2007 aldian zertxobait jaitsi ostean (23,7 puntuko aldea zegoen 1997an eta 2007an 20,7), diferentziala ia sei puntutan murriztu da bat-batean 2007tik 2009ra bitarte, 2009. urtearen amaieran 14,9 puntukoa izanik. Hala ere, gizonen eta emakumeen jarduera-tasen (% 78,9 eta % 63,9, hurrenez hurren) diferentziala oso handia da oraindik ere, emakumeen kaltetan.

Okupazio-koefizienteak

62. Jarduerarako joera txikiagoa izatearen ondorioz, eta langabezia-tasa gaur egun gizonena baino txikiagoa den arren, emakumeen okupazio-koefizientea gizonena baino askoz txikiagoa da: % 58,8 eta % 71,6. 2009. urtean lan jarraitua izan duten landunen proportzioa aztertzen badugu, ikusiko dugu antzeko aldea dagoela: 16-64 urteko emakumeetan % 52,1, eta gizonetan % 66,5.

Alabaina, adierazle horien mailak gora egin du emakumeen artean 2007tik 2009ra bitarte (% 57,4tik % 58,8ra okupazio-koefizienteari dagokionez, eta % 49,7tik % 52,1era okupazio jarraituaren tasari dagokionez), eta gizonen kasuan, jaitsiera paralelo handiak izan dira (% 78,6tik % 71,6ra, eta % 71,9tik % 66,5era). Horren guztiaren ondorioz ere, sexuaren araberako diferentziala murriztu egin da.

Lan egiteagatiko diru-sarrerak nabarmen txikiagoak oraindik ere

63. Lan egiteagatiko diru-sarrera garbiei buruzko datuek erakusten dute, bestalde, alde handia dagoela gizonen eta emakumeen artean. 2009ko amaieran emakume landunen gutxi gorabeherako diru-sarrerak gizonen batez besteko sarreren % 82,4 osatzen dute, batez beste¹². Alabaina, adierazle hori aurreko urteetako baino handiagoa da (2007an % 78,4 eta 2005ean % 78,1), baita 2006an lortutako maila gorena baino handiagoa ere (% 80,4)¹³.

Euskal emakumea aurrera Europako testuinguruan

64. Lan-merkatuaren inguruan, 2007-2009 biurtekoan atzemandako bilakaeraren alderdi positiboena zera da, lehen aldiz, EAEko emakumeen okupazio-koefizientea EB-27ko emakumeen batez besteko maila baino handiagoa dela (% 58,8 eta % 58,5, hurrenez hurren). Izan ere, EB-27ko adierazlea bi hamarren murriztu da 2007tik 2009ra bitarte; aitzitik, EAEko emakumeen koefizienteak 1,4 puntuko gorakada izan du¹⁴.

Europar Batasunaren okupazio-testuinguruan euskal emakumearen posizioa askoz hobea da gaur egun eta, bereziki, Gasteiz, Donostialdea eta Debagoiena eskualdeetan, % 61etik gorako okupazio-koefizientea baitute; halaber, Bilbo eta Tolosa-Goierri eskualdeak ere Europako batez bestekoaren inguruko mailan daude. Alabaina, eskualde horietako emakumeen okupazio-koefizienteak Europako hainbat herrialdeetako mailetatik urrun geratzen dira, Austria, Alemania, Erresuma Batua, Herbehereak, Danimarka, Suedia eta Finlandia % 65etik gora baitaude.

¹² Inkesta egiteko garaian diru-sarrera positiboak dituzten landunei buruzko datuak dira. Hainbanatutako aparteko ordainsariak ez dira aintzat hartu diru-sarrera horietan.

¹³ 2008-9ko Lan Baldintzei buruzko Inkestan argi ikusten denez, ordainsariei dagokienez, gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak hirugarren faktoreekin baldintzatuta daude —esaterako, lan egindako orduen batez bestekoa—, eta sexuaren araberako diferentziala askoz ere txikiagoa da lan egindako ordu bakoitzeko ordainsariaren batez besteko maila kontuan hartuz gero. Kasu horretan, 2009ko LBI ordainsarien maila orokorretan % 19,5eko diferentzial negatiboa atzeman da emakumeen kaltetan, baina alde hori gizonek kobratzen dutenaren % 4,3ra murrizten da, betiere ordu bakoitzeko ordainsari garbia aztertuz gero.

¹⁴ Gizonezkoen okupazio-koefizientea ere handiagoa da Euskadin EB-27ren batez besteko maila baino (% 71,6 eta % 70,3, hurrenez hurren). Dena den, 2007-2009 aldian gizonezkoen okupazio-koefizienteetan gertatutako jaitsiera askoz ere handiagoa da Euskadin, 2007an % 78,6tik abiatu baitzen (% 72,7 EB-27n).

LAN MERKATUAREN AZKEN ALDIKO BILAKAERA ESQUALDEAREN ARABERA

Euskadiko krisiaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat eskualdearen arabera eragin oso bestelakoa da. Krisiaren eraginaren adierazle nagusitzat langabeziaren zenbateko absolutuen aldakuntza-adierazlea hartuta, 2007-2009 aldian langabeziaren hazkunderan eskualdearen arabera izandako aldeak bi faktoretan oinarritzen dira.

Lehenengo faktorea honako hau da: 2007tik 2009ra bitarte, okupazio zenbatekoen gainbehera handiagoa izan da zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako —bereziki, industriako— enpleguak garrantzi erlatibo handiena duen eskualdeetan. Bigarren faktorea: aztergai dugun aldian, urbanizazio-maila handiko zenbait eskualdetan biztanleria aktiboaren hazkunde erlatibo handiagoa izan da. Testuinguru horretan, adin aktiboan dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bolumen-igoera oso garrantzitsua da, bereziki zenbait eskualdetan eta, batik bat, Gasteizen kasuan.

ALDEAK OKUPAZIOAREN BILAKAERAN

Okupazio-jaitsieraren eragin ezberdina

2007. urtetik 2009. urtera bitarte, EAEko eskualde guztietan okupazio zenbatekoak murriztu egin dira. Murrizketa horren eragin erlatiboa, ordea, ez da berdina eskualde guztietan, eta industriak garrantzi erlatibo handiena duen eskualdeetan bereziki eragin du.

Okupazio-krisi garrantzitsua eskualde industrializatuenetan

65. Zenbateko erlatibotan, okupazioaren jaitsiera bereziki nabarmena izan da Durangaldean, Tolosa-Goierrin, Debagoiengan eta Debabarrenean. 2009. urtean, eskualde horietako okupazioa % 6tik % 7ra bitarte murriztu da 2007. urtearekin alderatuta, eta okupazio-koefizientea 5 puntutik 5,5 puntura bitarte. Okupazio-galera % 4,2 izan da Aiaran, baina eskualde horren okupazio-koefizientea 6 puntu jaitsi da 2007-2009 aldian.

Zenbateko kualitatibotan, jaitsieraren ondorioak txikiagoak dira Aiaran eta Durangaldean; izan ere, eskualde horietan, okupazioaren beheranzko joera dela-eta, 2005-2006ko okupazio-mailetara jaitsi dira. Tolosa-Goierrin, ordea, jaitsieraren ondorioz 2003ko mailetara iritsi dira, eta Debabarrenean eta Debagoiengan, esaterako, 2001eko okupazio-mailara itzuli dira.

Debagoiengan eta Tolosa-Goierri 2005-2007 aldira jada sumatzen zen joera

66. Gipuzkoako zenbait eskualdetan, 2007-2009 aldiko jaitsiera handi hori aurreko joera baten areagotzea baino ez da, lehendik okupazioak beheranzko joera baitzuen. Hain justu, 2006tik 2007ra bitarte Debagoiengan haustura garrantzitsua gertatu zen, aldi horretan okupazioaren % 6,1 galdu baitzuen eskualde horrek, (2005-2007 biurteko osoan % -4,1). Arazo horiek Tolosa-Goierri ere sumatu ziren, 2005etik 2007ra bitarte okupazioaren % 0,9 galdu baitzuen, nahiz eta 2006an eta 2007an adierazle gorakada txiki bat izan.

Baina ez Durangaldean, Aiaran eta Debabarrenean

67. Beste zenbait eskualdetan, aldiz, 2007-2009 biurteko krisialdia ez dago iragarria 2005-2007 biurtekoaren bilakaerarekin. Bereziki Durangaldearen kasuan, aurreko biurtekoan okupazioa % 7,8 handitu zen. Erritmo txikiagoan bada ere, Aiaran eta Debabarrenean ere okupazioak aurrera egin zuen aldi horretan (% 5,4 eta % 3,2).

Okupazioaren jaitsiera txikiagoa eskualde urbanizatuetan eta Bizkaia-Kostan

68. 2007-2009 aldira, okupazioaren jaitsiera askoz ere txikiagoa da EAeko gainerako eskualdeetan, hau da, industriaren sektoreak hainbesteko garrantzirik ez duen eskualdeetan. Murrizketak % 1,5etik % 3ra bitartekoak dira, oro har, Eskuinaldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, eta soilik % 0,3-0,5ekoak Gasteizen eta Bilbon. Hala ere, Bizkaia-Kostan izan ezik, beste eskualdeetan 2006. eta 2007. urteetan okupazioaren zenbatekoetan egonkortzeko edo jaisteko prozesuak bizi izan zituzten.

Azpiko prozesuak

Zerbitzuetako ez diren sektoreetan okupazioaren beherakada

69. Oro har, zerbitzuetako enpleguak goranzko joerari eusten dion testuinguruan, 2007-2009 aldiko okupazioaren jaitsieraren azpian dauden faktoreak aztertzeko garaian, zerbitzuetako ez diren sektoreetan (nekazaritza, industria eta eraikuntza) okupazioak izan duen jaitsiera oso garrantzitsua izan dela aipatu behar dugu. Bizkaia-Kostan izan ezik (non sektore horietako okupazio-jaitsiera eskualdeko guztirako okupazioaren % 1,4 baino ez den izan 2007-2009 aldira), eragina erabakigarria da EAeko gainerako eskualdeetan. Gasteiz, Aiara, Bilbo, Donostialdea eta Debabarrenean % 3,5etik % 5era bitartekoa da, eta % 6,5etik % 7ra bitartekoa Eskuinaldean eta Ezkerraldean. Aztergai ditugun sektoreetako okupazio-galera handienak —betiere 2007. urtean eskualdeak zuen guztirako okupazioari dagokionez— Tolosa-Goierri (% -8,4), Debagoiengan (% -9,8) eta Durangaldean (% -13,3) izan dira.

Jaitsiera ez dago konpentsatua eremu ez hain urbanizatuetan

70. Aurreko datuetatik ondoriozta daitekeen moduan, 2007tik 2009ra bitarte eskualde industrializatuenetan gertatutako okupazio-galera handienak, askotan, zerbitzutakoak ez diren sektoretako okupazio-beherakada handiekin loturik egoten dira. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoiengan, 2007-2009 aldiko okupazio-jaitsieren eragin handiena pairatu duten lau eskualdeetatik hiru diren heinean. Eskualde horietan, zerbitzuetako okupazioaren goranzko joera ez da nahikoa beste sektoreetako okupazio-galerek konpentsatzeko (soilik % 27,2 Tolosa-Goierrin eta % 35,3 Debagoiengan, eta gehienez ere % 53,6 Durangaldean; hala ere, azken eskualde horretan, zerbitzutakoak ez diren sektoreen gainbeherak eragin nabarmena izan du). Bestalde, industriaren krisiaren eragina erabakigarria da hiru eskualde horietan; izan ere, industriaren okupazio-galerek zerbitzutakoak ez diren sektoreetako okupazioaren jaitsieraren % 89,6tik % 94,1era bitarte osatzen dute 2007-2009 biurtekoan.
71. Beste batzuetan, zerbitzutakoak ez diren sektoreetan —eta, bereziki, industrian— okupazio-galerek ez dira hain handiak izan baina zerbitzu-sektorearen bilakaera ez denez positiboa, 2007-2009 aldian okupazio-mailak murriztu edo egonkortu egin dira. Errealitate hori bizi dute Aiaran, eta, bereziki, Debabarrenean, horixe baita zerbitzuetan okupazioaren murrizketa esanguratsua izan duen eskualde bakarra, erreferentziako biurtekoan.

Zerbitzu-sektorea konpentsatzeko gai da urbanizazio handieneko eremuetan

72. Industriak garrantzi handia duen eskualdeetan ez bezala, urbanizazio-maila handiko gainerako eskualdeetan —Bizkaia-Kostan izan ezik—, ezaugarri aipagarriena hauxe da: zerbitzu-sektorea konpentsazio-faktore bihurtu da 2007-2009 aldian beste sektoreetan gertatutako krisiari dagokionez. Gasteiz, Bilbo eta Ezkerraldea eskualdeetan, esaterako, gainerako sektoreetako galeren % 80 konpentsatuta geratzen da zerbitzu-sektoreko okupazio-irabaziekin, eta horregatik, 2007-2009 aldian okupazio-galera txikiak izan dituzte, konparazioz.

Ezkerraldearen kasuan, deskribatutako egoerak berebiziko garrantzia du, zerbitzu-sektoretik kanpoko okupazio-galera handienetakoak izan baititu (2007an, eskualdeko okupazioaren % 6,9ko jaitsiera, EAEko batez bestekoa eta Bilboko % -3,8 ere gaudituta). Eskuinaldearen egoera Ezkerraldearen antzekoa da, bereziki, zerbitzu-sektoretik kanpoko okupazio-jaitsiera eskualdeko okupazioaren % 6,6 izan delako 2007an, eta horretaz gain, zerbitzuetako okupazio-irabazien bidez galera horiek hein handi batean konpentsatuta geratu direlako. Konpentsazio-maila, ordea, % 60,5era murriztu da kasu horretan; beraz, 2007-2009 aldian okupazio-galera orokorrak handiagoak dira eskualde horretan Bilbo

inguruko eremu geografikoan baino (% -2,6 Eskuinaldean, % -1,3 Ezkerraldean eta % -0,3 Bilbon).

73. Ezkerraldearekin eta Eskuinaldearekin batera, Donostialdean ere zerbitzu-sektoretik kanpo okupazio-galera handiak izan dira 2007-2009 aldian, 2007ko eskualdeko okupazioaren % 4,9 osatuz; zenbateko hori handiagoa da industriak garrantzi handia duen beste eskualde batzuetakoa baino (Aiara edo Debabarrena, kasu). Aldiz, Eskuinaldean eta Ezkerraldean ez bezala, galera horiek ez dira hainbeste konpentsatzen zerbitzu-sektoreko okupazio-irabaziekin (soilik % 37,3). Horren ondorioz, eskualde horretan 2007tik 2009ra bitarte okupazio-galera orokorra nabarmenagoa izan da (% 3), Bilbo inguruko hiru eskualdeetako batez besteko % 1,2 eta Gasteizeko % 0,5 erraz gaindituta.
74. Bizkaia-Kosta berezia da, bai zerbitzu-sektoretik kanpoko okupazio-beherakadek 2007ko guztirako okupazioan duten eragin txikia dela-eta (% -1,4), bai sektore horretan okupazioa egonkortu egin delako 2007-2009 aldian.

Ikuspegi sintetikoa: industria-krisia eta zerbitzu-sektoreak etorkizunean hazteko gaitasuna

75. Aurkeztutako datuen arabera, 2007-2009 aldiko okupazio-krisia zerbitzu-sektoretik kanpo gertatutako okupazio-galerekin estu-estu loturik dago. Galera horiek handiagoak dira industriak garrantzi erlatibo handiagoa duen eskualdeetan, alegia, EAEn urbanizazio-mailarik handienetako eskualdeetan, baina Nerbioi ibaiaren bi ertzetan eta Donostialdean ere eragin esanguratsua izan du. Joera hori ez da berria, okupazioaren gainbehera hori lehendik ikusi baitzen Bilbon, Ezkerraldean eta Debagoiengan 2006. eta 2007. urteetan, eta Donostialdean eta Gasteizen okupazioa egonkortuta zegoen jada; egoera horiek, hein batean, behintzat, zerbitzutakoak ez diren sektoreetako okupazioan izandako jaitsierekin loturik zeuden aldi horretan.

2007-2009 biurtekoko krisia eta krisi horren aurrekariak kontuan izanik, zerbitzutakoak ez diren sektoreetan krisialdi orokorra dagoela esan dezakegu, baina ezin dugu aipatu gabe utzi industriaren krisiak aldi horretan izan duen garrantzi diferentziala. EAE osoan, zerbitzu-sektoretik kanpoko okupazio-jaitsieraren % 82,9 industriako okupazio-galera garbiekin loturik dago zuzen-zuzenean, eta eraikuntzan, soilik % 17,1. Zerbitzu-sektoretik kanpoko okupazio-gainbeheraren eragin handiena izan duten sei eskualdeetan — Eskuinaldea, Ezkerraldea, Durangaldea, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena—, aurreko proportzio hori % 86,3ra ere iristen da. Datu hori erabakigarria da; izan ere, sei eskualde horietan metatzen baita EAEn 2007-2009 aldian izandako okupazio-galera garbien % 81.

76. Aurreko guztia alde batera utzi gabe, 2007-2009 aldian bada beste alderdi erabakigarri bat: zerbitzu-sektoreak ez du konpentsatzeko gaitasun berdina EAEko eskualde guztietan. Beste sektoreetan izandako okupazio-galerak konpentsatzeko gaitasun hori txikia da industria nagusi den eskualdeetan eta Donostialdean, baina Bilbo inguruko eskualdeetan eta Gasteizen erabakigarria da. Beraz, 2006an eta 2007an jada sumatzen zenari jarraiki, okupazio-datuen bilakaera positiboagoa zerbitzu-sektoreak okupazio berria sortzeko duen gaitasunarekin loturik dago.

Alabaina, ez dugu ahaztu behar EAEko urbanizazio-maila handieneko eskualdeetan okupazio zenbateko orokorrak egonkoritu eta zertxobait jaitsi egin zirela 2006an eta 2007an, 2007-2009 aldiko jaitsiera orokorrak (zenbateko orokorretan) gertatu aurretik. Errealitate horrek prebentziorako balio beharko luke, krisia luzatuko balitz ere, 2007-2009 biurtekoan eskualde horiek zerbitzuetako okupazioan dagoen goranzko joerari eusteko gai izango diren ustetan, baikorregi ez izateko. Prebentzio hori bereziki beharrezkoa da, ezin baitugu ahaztu eskualde horietan, 2005ean edo 2006an, haustura gertatu zela 1997-2005 aldian zerbitzuetako okupazioaren hazkunde handiko joerari dagokionez.

Eskualdeetako okupazio-koefizienteak bat etortzea

77. 2007-2009 aldiko bilakaeraren ondorioetako bat zera da, eskualdeetako okupazio-koefizienteak gero eta gehiago datozela bat. Ildo beretik, okupazio-koefizienteen jaitsiera handienak (5 puntutik gorakoak) honako eskualde hauetan gertatu dira: 2007an, EAEko batez besteko koefizientea argi eta garbi gainditzen zuten eskualdeetan (% 69tik gorako mailekin), hau da, Aiaran, Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan; okupazio-koefizienteen galera handiko talde horretan, Debabarrena soilik zegoen EAEko batez besteko mailaren inguruan, % 68ko mailarekin. Aitzitik, 2007-2009 aldiko jaitsiera txikienak Bilbo inguruko hiru eskualdeetan eta Bizkaia-Kostan gertatu dira; 2007. urtean, eskualde horietako okupazio-koefizienteak EAEko batez bestekoa baino puntu bat, gutxienez, txikiagoak ziren.

Hori horrela izanik, azken aldiko joerak lagungarriak dira euskal eskualdeetako okupazio-koefizienteak berdintzeko prozesua sendotzearen; 90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen prozesu hori eta oso deigarria da urbanizazio handieneko eremuetan. 1997an, okupazio-koefiziente handiena duen eskualde urbanizatuak, hots, Gasteiz, 14,2 puntutan gainditzen zuen landunen proportzio txikiena duen eskualdearen, hots, Ezkerraldearen, erregistroa 16-64 urteko biztanleriari dagokionez (batak % 58,6 eta besteak % 44,4). 2009an, Gasteizen eta Ezkerraldearen arteko tartea 2 puntukoa baino ez da, eskualde horien koefizienteak hazi diren testuinguruan, nahiz eta azken aldian jaitsierak gertatu (batak % 65,5 eta besteak % 63,5). Egia da, ordea, 1997-2009 aldian Gasteizko okupazioaren hazkundera txikiagoa izateak eragin duela 2009. urtean

Donostialdea izatea okupazio-koefizienterik handiena duen eskualdea, Euskadiko eskualde urbanizatuenen artean (Donostialdeak % 67,9). Baina Ezkerraldearekiko aldea 4,4 puntukoa da urte horretan eta 1997ko 9,3 puntukoa baino askoz ere txikiagoa da oraindik ere.

Okupazio-mailetan beherakada orokorren testuinguruan, hala ere

78. Alderdi positiboak (eta, bereziki, orain arte egoera txarrean egon diren eskualdeen erresistentzia handiagoa) alde batera utzi gabe, behin eta berriz esan behar dugu azken aldian okupazio-koefizienteen konbergentzia hori beheranzkoa dela eta EAEko okupazio-koefizientea % 68,1etik % 65,2ra murriztu dela 2007-2009 aldian. Gainera, jaitsiera horiek, oro har, EAEko eskualde guztietan gertatu dira.

Europar okupazio-maila handieneko herrialdeetatik urruntzen ari da Euskadi

79. Aldaketa horien eraginez, euskal eskualdeen posizioa aldatzen ari da Europako testuinguruan. Egia da, krisia gorabehera, EAEko eskualde gehienetan okupazio-koefizientea EB-27ko batez besteko koefizientea (% 64,4) baino handiagoa dela oraindik ere. Posiziorik onena Donostialdeak, Tolosa-Goierrik eta Debagoienak dute, % 65etik nabarmen gorako okupazio-koefizienteak dituzte-eta (% 67,9, % 67,4 eta % 66,7, hurrenez hurren). Bestalde, % 65 inguruan dabilta Arabako eskualdeak (% 65,5 Gasteizen eta % 65 Aiaran), baita Bizkaia-Kostan (% 65,2) ere.

Baina 2007. urtean ez bezala, aipatutako eskualde horietatik bat bera ere ez da hurbiltzen Europar okupazio-maila handiena duten Estatuaren posizioetara, 16-64 urteko biztanleriaren okupazioari dagokionez, % 70etik gorako okupazio-koefizienteak baitituzte¹⁵. Horretaz gain, eta 2006. edo 2007. urteetan ez bezala, orain eskualde asko daude berriz ere EB-27ko okupazioaren batez besteko mailatik behera. 2009. urtean, Bilbo inguruko hiru eskualdeak berriz ere Europako batez bestekoaren azpitik edo maila horretan daude: Eskuinaldean eta Ezkerraldean % 63,5 inguruko okupazio-koefizientea dute, eta Bilbon % 64,4; Durangaldea ere antzeko egoeran dago (% 63,9). Europarekiko alderik handiena, ordea, Gipuzkoako eskualde bati dagokio, Debarrenari, hain zuzen, % 62,6ko maila — txikiena— duela.

¹⁵ Aiaran, Donostialdean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienean (% 70etik gora), okupazio-koefizientea Europako batez bestekoa baino handiagoa zen 2007. urtean (5 puntutik 7 puntura bitarte), eta Europar okupazio-maila handienak zituzten Estatuaren posizioetatik hurbil zeuden (egia esan, soilik honako haueetatik urruntzen ziren nabarmen: Suediako % 74tik, Herbehereetako % 76,4tik eta Danimarkako % 77,4tik).

Eta hazkundearen zenbait muga historiko berriz ere gogorarazi behar

80. Aldaketa horiek guztiak aintzat hartuta, Euskadin okupazioaren hazkundeari jarritako zenbait muga historiko gogorarazi behar ditugu ezinbestean. 2007. urtera bitarte aurrera egin arren eta 2007-2009 aldiko krisiak, konparazioz, eragin txikiagoa izan duen arren, mugarik egiturazkoenak Bizkaiko eskualde asko hartzen ditu eraginpean. Azken aldiko bilakaerak ez du, ordea, erabat aldatzen Bilbo inguruko eskualdeen posizio historiko txarra, okupazio-koefizientei dagokienez, eta gainera, 2009an arazo hori Durangaldera ere iritsi da. Bizkaian, soilik Bizkaia-Kosta eskualdea iritsi da 2009. urtean EAEko batez besteko okupazio-koefizienteen mailara.

Beraz, ez dugu ahaztu behar Bilbo inguruko eskualdeetan desindustrializazioaren iraganak zenbateko eragina izan zuen, eta 2009an, industrian eta eraikuntzan okupazio-koefizienteak % 20 baino txikiagoak dira kasu guztietan (mailarik txikiena Bilbok du, % 14,2rekin, eta handiena, aldiz, Ezkerraldeak, soilik % 18,7rekin). Bigarren sektorean okupazioa jaistearen ondorioz, Bizkaiko beste eskualde bat —Bizkaia-Kosta— egoera horretan sartzeko zorian dago 2009. urtean, 16-64 urteko biztanleriaren % 20,1 industrian eta eraikuntzan lanean ari dela. Alabaina, desindustrializazio erlatiboaren arriskua Bizkaitik kanpo ere zabaldu da, bereziki, Gasteizen; izan ere, eskualde horretan industriako eta eraikuntzako okupazio-koefizientea 2007ko % 26,3tik 2009ko % 22,5era murriztu da.

Bizkaiko area urbanizatuenetako okupazio-koefiziente orokorraren maila txikia da (gaur egun, Bilbon % 64,3 da mailarik handiena) industrian eta eraikuntzan koefizienteak txikiak direlako, betiere Donostialdeko % 67,9rekin alderatuz gero. Bigarren sektorean oinarri ekonomiko bati eustearen garrantzia faktore diferentzial nagusi da Donostialdearen eta Bilbo inguruko hiru eskualdeen errealitateak alderatuta. Gipuzkoako eskualdearen alde 3,5 puntuko diferentziala dago okupazio-koefiziente orokorrean —nekazaritzaren sektorea alde batera utzita— Bilbo inguruko hiru eskualdeei dagokienez, (% 66,8 Donostialdean, eta batez beste % 63,3 eskualde bizkaitarretan); diferentzial hori, hein handi batean, industriaren eta eraikuntzaren okupazio-koefizientea 2,8 puntu handiagoa izatearekin loturik dago (Donostialdean % 19,1 eta bizkaitarretan % 16,3).

81. Gasteizen, bigarren sektoreko enpleguak garrantzi erlatibo handiagoa du (16-64 urteko biztanleriaren % 22,5, eta Donostialdean % 19,1); horri esker, Gasteizek gaintitu egiten du Bilbo inguruko hiru eskualdeetako okupazio-koefiziente orokorra baina hori ez da nahikoa Donostialdearekin duen 6,5 puntuko diferentziala konpentsatzeko, zerbitzu-sektorean. Epe luzera begira, Gasteiz bereziki nabarmentzeko moduko eskualdea da; izan ere, 1997-2009 aldian okupazio-koefizienteak gutxien hobetu dituen eskualdea da (+6,9 puntu, Debagoiena baino bi puntutik gora gutxiago, eta Debagoiena da aldi horretan hazkunde txikiena izan duen bigarren eskualdea; EAEko batez bestekoaren azpitik dago, 7,2 puntu).

Gasteizen bilakaera ez dator bat Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetakoarekin. Azken urteotako okupazioan izandako galerak galera —zenbait kasutan, 2007. urtea baino lehen—, 2009an eskualde horiek goiko postuetan daude okupazio-koefizientearen adierazleari dagokionez, eta 1997. urtean, Gasteizek baino okupazio-koefiziente txikiagoa zuten. Alabaina, 1997an lehenengo postuan zegoen arren, Gasteiz 2006an laugarren postura jaitsi zen, eta 2007an seigarrenera, baina 2009an berriz ere laugarrenera igo da, Aiaran eta Durangaldean azken urteotan izandako bilakaera negatiboaren ondorioz bada ere.

Gasteizek lehiakortasun-posizioan behera egin badu, 2001-2007 aldian izandako desfasearengatik izan da, okupazio-koefizientearen 2 puntuko hazkundera izan baitu aldi horretan, baina Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, batez beste, 7,9 puntukoa izan da. 5,9 puntuko hazkunde-diferentzial horren zati handiena zerbitzu-sektorearekin loturik dago, baina beste zati garrantzitsu bat industriako okupazio-koefizientearen jaitsierari dagokio, 2001-2007 aldian Arabako eskualde horretan 2,1 puntuko beherakada izan baitzen; gainerako eskualdeetan, 0,9 puntuko hazkundera izan da.

82. Azkenik, Debabarrenaren kasua ezohikoa da Gipuzkoako testuinguruan. 1997an nabarmentzen zen, jada, Gipuzkoako gainerako eskualdeetako okupazio-koefizientea baino askoz txikiagoa zuelako, baina Debabarrenaren okupazioaren bilakaera ez da Euskadiko gainerako eskualdeena bezain positiboa, 2006. urtera bitarte eta 2007-2009 aldiko krisialdiak gogor eragin du eskualde horretan. Horregatik, 1997an EAEko batez besteko mailetan bazegoen ere, 2009an bi puntu baino zertxobait beherago dago. % 62,6ko okupazio-koefizientea izaki, Gipuzkoako gainerako eskualdeak baino 4-5 puntu beherago dago, eta kasu horretan, errealitate horrek sektore anitz hartzen ditu eraginpean eta ez dago industriaren garrantzi erlatibo txikiagoarekin loturik, 16-64 urteko biztanleriaren okupazioan.

Muga horiek EAEko beste eremu batzuetara zabal daitezke, industriaren krisiaren eraginez

83. Debabarrena posizio txarrean dago Gipuzkoako gainerako eskualdeekin alderatuta baina posizio hori ez dago loturik soilik industriaren okupazioaren bilakaerarekin; eskualde hori alde batera utzita, Bilbo inguruan eta Gasteizen atzemandako gabeziak bai daude loturik, hein batean, bederen, industria-sektoreak eskualde horietan izan duen arazo historikoarekin. Hortaz, kezka handiz erreparatu behar diogu Euskadiko industria-krisi berriari, bereziki, zenbait eskualdetan —Debagoienera edo Tolosa-Goierri—, hamarkadaren erdialdera bitarte okupazioan goranzko joera izan baitzuten. Eskualde horietan, industriaren okupazio-koefizientea 6,2 eta 7,6 puntu, hurrenez hurren, murriztu da 2007-2009 aldian, baina bada industriarekin loturiko beste eskualde bat jaitsiera handiagoa izan duena: Durangaldea (-8,8 puntu).

Euskadiko desindustrializazio-prozesua zabaltzen ari den adierazle izan daitekeen heinean, 2007-2009 biurtekoko krisiak zalantza handiak eragiten ditu enpleguak etorkizunean Euskadin izan dezakeen bilakaeraren gainean. Bereziki Debagoienera, okupazio-koefiziente orokorra 1,5 puntu jaitsi baitzen 2006tik 2007ra bitarte, badirudi Gasteizko dinamika negatibora hurbiltzen ari direla. Izan ere, Gasteizen atzetik, 1997-2009 aldian okupazio-koefiziente orokorra gutxien hobetu duen eskualdea Debagoiena da.

84. Azken urtean okupazio jarraitua izan duen 16-64 urteko biztanleriaren adierazlea aztertuz gero, azken aldiko joerak agerian geratuko dira eta argi ikusiko dugu, halaber, industriari garrantzi handia duen eskualdeetan okupazio-jaitsierek izan duten eragin diferentziala. 2007-2009 aldiko beherakada handienak —3 puntutik gorako murrizketekin— Gasteizen eta Aiaran gertatu dira, eta mailarik handiena —6 puntutik 7 puntura bitarte— Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean sumatu dira. Debagoieneko jaitsiera 2006-2007 aldian hasia zen jada eta tarteko posizioan dago (-5,2 puntu 2006tik 2009ra bitarte).

ALDEAK JARDUERAREN BILAKAERAN

EAEko biztanleria aktiboaren zenbatekoetan hazkunde handia izan da, baina horrek ez du esan nahi eskualde guztietan portaerak antzekoak izan direnik. Izan ere, urbanizazio-maila handiko zenbait eremutan jardueraren zenbatekoak nabarmen hazi dira baina, aitzitik, industriaren sektoreak garrantzi handia duen zenbait eskualdetan okupazioaren jaitsiera konpentsatzen duten mugimenduak sumatu dira. Aurrerago egiaztatuko dugunez, portaera ezberdin horiek oso garrantzitsuak dira eskualdeetako langabezia-tasen azken aldiko bilakaerari dagokionez.

Biztanleria aktiboaren gorakada Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean

85. 2007-2009 aldian jarduerarako joeraren hazkundera bereziki handia da zenbait eskualdetan. Hori horrela izanik, jarduera-tasa 3,3 puntu handitu da Ezkerraldean, 2,5 puntu inguru Bilbon eta Gasteizen eta 1,6 puntu Bizkaia-Kostan. Hazkunde txikiena Donostialdeari dagokio (+0,6 puntu).

16-64 urteko biztanleriaren zenbateko orokorren bilakaera dela-eta, biztanleria aktiboaren bolumena nabarmen handitu da Bilbon, Ezkerraldean eta Gasteizen: 2007-2009 aldian % 4,7, % 6,3 eta % 9,3, hurrenez hurren, Bizkaia-Kostaren % 3,6 eta Donostialdearen % 1,9 gaindituta. Bizkaiko eskualdeetan aktibo kopuruaren gorakada jarduera-tasen hobekuntzarekin, batik bat, loturik dago; izan ere, 2009. urtera bitarte EAEko batez bestekoak baino askoz ere txikiagoak ziren. Aldiz, Gasteizen eta Donostialdean goranzko joera hori ez da soilik jarduerarako joeraren gorakadarekin lotzen, eskualde horiek Euskadi osoko jarduera-tasa handiena baitute (% 73,4). Bi eremu geografiko horietan, aktibo-bolumenaren hazkundera 16-64 urteko biztanleriaren gorakadarekin, bereziki, loturik dago, eta fenomeno horrek garrantzi kuantitatibo berezia du Gasteizen.

Jarduera-tasaren jaitsiera gainerako eskualdeetan

86. Aipatutako eskualdeetan jarduerak izan duen bilakaera positiboari aurka eginez, 2007-2009 biurtekoan jarduera-tasak behera egin du EAEko gainerako eskualdeetan (Eskuinaldean, urbanizazio-maila txikiena dutenetan eta industria-sektorearen garrantzi handieneko eskualdeetan izan ezik). Hortaz, jarduera-tasa 0,5 puntutik gora murriztu da Durangaldean eta Debarrenean, 1,2 puntu Eskuinaldean eta 2,5 puntu inguru Aiaran, Tolosa-Goierrin eta Debagoiengan. Tolosa-Goierrin eta Debagoiengan jarduera-tasa nabarmen handitu zen lehendik ere 1997-2005 aldian, baina jardueraren beheranzko joera 2005-2007 biurtekoan hasia zen jada.

16-64 urteko biztanleriak gora egin du aipatutako zenbait eskualdetan, baina jarduera-tasaren jaitsiera ez da eragozpen zenbait kasutan biztanleria aktiboaren kopurua egonkortzeko edo oso gutxi murrizteko —ezta zertxobait gora egiteko ere— 2007-2009 biurtekoan. Horixe gertatu da Aiaran, Eskuinaldean, Durangaldean edo Debarrenean. Biurteko horretan, biztanleria aktiboaren bolumenean jaitsiera aipagarriak (% 2 baino zertxobait handiagoak) honako eskualde hauetan baino ez dira ikusi: Debagoiengan eta Tolosa-Goierrin.

LANGABEZIAREN EGOERA

Okupazioaren eta jardueraren bilakaeraren eragina langabezia-mailan

2007. urtean, langabezia-tasak oso txikiak ziren eskualde guztietan; testuinguru horretan, okupazioaren eta jardueraren azken aldiko bilakaera erabakigarria da 2009. urtean langabezia-tasetan dauden aldeak azaltzeko, eskualde guztietan goranzko joera duela.

Jarduerari eustea lagungarria da okupazioaren jaitsieraren eragina murrizteko eskualde industrialenetan eta Eskuinaldean

87. Industriak garrantzia duen eskualdeetan —Aiaran, Durangaldean, Tolosa-Goierriin, Debagoiengan eta Debabarrenean—, okupazioaren zenbatekoen jaitsiera da langabeziaren eta langabezia-tasaren hazkundearen faktore garrantzitsua 2007tik 2009ra bitarte. Hala ere, eskualde horietan jarduera-tasetan beheranzko joera dago eta horrek konpentsatu egiten du datu hori. Faktore hori garrantzitsua da Eskuinaldean ere; eskualde hori zerbitzu-sektoreko jarduerara bideratuta dago, gehienbat. Jarduera-tasaren beherakadak langabeziaren gain duen eragina, ordea, ez da berdina eskualde guztietan.

Aiaran, Eskuinaldean, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan langabezia-tasei % 5 inguruan eustea ahalbidetzen du

88. 2007-2009 aldian okupazio-mailetan izandako jaitsiera esanguratsuak gorabehera (% 2,6 Eskuinaldean, % 4,2 Aiara eta % 6tik gora Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan), lau eskualde horietan langabezia-mailari % 5 inguruan eutsi diote (% 5,5 Debagoiengan, % 5,6 Tolosa-Goierriin eta % 6,4 Aiara eta Eskuinaldean).

Arrazoietako bat zera da, eskualde horietan, jarduera-tasaren jaitsierarekin langabeziaren hazkunde potentziala partzialki konpentsatu dela, hain zuzen ere, okupazio-jaitsierarekin eta, biztanleria aktiboaren bolumen-hazkundeari dagokionez, 16-64 urteko biztanleriaren hazkundeak duen eraginarekin loturiko langabeziaren hazkunde potentziala. Beraz, hazkunde potentzial horren % 44-48 konpentsatuta geratu da biztanleria aktiboaren zati bat lan-merkatutik atera delako lau eskualde horietan.

Faktore horrekin batera, beste errealitate bat ere aipatu behar da: 2007. urtean EAEko langabezia-tasa txikiak —% 1,5 ingurukoak— Aiara, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan zituzten. Eskuinaldean tasa % 4,2 zen arren, okupazioaren jaitsiera txikiagoa da konparazioz eskualde horretan 2007-2009 aldian, eta aztergai ditugun beste hiru eskualdeekin bat egiteko lagungarri izan da hori, 2009an % 5,5-6,5 inguruko langabezia-tasekin.

Aldiz, ez da nahikoa Durangaldean eta Debabarrenean % 9 inguruko langabezia-tasetara iristea saihesteko

89. Debabarrena eta Durangaldea eskualdeetan ere jarduera-tasen gainbehera gertatu da, baina konparazioz, hein txikiagoan. Langabeziaren hazkunde potentzialaren % 10,8tik % 13,5era bitarte baino ez du konpentsatzen, betiere langabezia hori aldi horretako okupazio-galerarekin (Durangaldean 2007ko okupazioaren % 6,2 eta Debabarrenean % 7) eta 16-64 urteko biztanleriaren bolumen-igoeraren ondoriozko biztanleria aktiboaren gorakadarekin loturik dagoela. Testuinguru horretan, 2007-2009 biurtekoko okupazio-galeren ondorioz langabezia-tasa handiak sortu dira (% 8,9 Durangaldean eta % 9,3 Debabarrenean), 2007koak baino askoz ere handiagoak izanik (% 1,9 eta % 2,5).

Batik bat, jardueraren goranzko joeraren ondorioz, Bizkaiko zenbait eskualdetan eta Gasteizen langabezia-tasak gora egin du

90. Aurreko atalean aztertu ditugun eskualdeetan ikusitakoari aurka eginez, bereziki, jardueraren goranzko joeraren ondorioz Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan, baita Gasteizen ere, langabeziak gora egiten du. Eskualde horietan, 2007-2009 aldian okupazioa % 0,3tik % 1,6ra bitarte baino ez da murriztu, langabeziaren hazkundearen % 70etik % 95era bitarte biztanleria aktiboaren gorakadarekin loturik dago, Bizkaia-Kostan % 3,6 eta Gasteizen % 9,3 baita.

Goian aztertu ditugun eskualdeen kasuan bezalaxe, prozesu horren ondorioak ere ez dira berdinak kasu guztietan. Dena den, oro har, 2007-2009 aldian okupazioaren murrizketa konparazioz askoz ere txikiagoa izan den arren beste horietan baino, langabeziaren gaineko eragina handiagoa da eskualde horietan, Bizkaia-Kostak gutxieneko maila duela (% 7,8).

Horretaz gain, egiaztatu ahal izango dugunez, eskualde multzo horretan, 2007-2009 aldian, biztanleria aktiboaren hazkunde-mailaren eta 2009ko langabezia-maila orokorraren arteko lotura positiboa ikusi dugu. Beraz, eremu geografiko horietan, 2007-2009 aldian biztanleriaren hazkundea zenbat eta handiagoa izan, langabezia-tasa orduan eta handiagoa da azken urte horretan. Hala eta guztiz ere, soilik Gasteizen, 2007-2009 aldian biztanleria aktiboaren hazkunde handia jarduera-tasa handiarekin loturik dago, izan ere, 2009an EAEko batez bestekoa baino handiagoa baita.

Bizkaia-Kostak tarteko langabezia-tasa du, % 7,5 ingurukoa

91. Okupazio-maila soilik % 1,6 murriztu da 2007-2009 aldian, baina Bizkaia-Kostaren langabezia-tasa % 7,8 da 2009an, EAEn langabeziaren eragin txikiena duten eskualdeen gaineratik 1,4 puntutik 2,3 puntura bitarte. Bi faktore aipatuko ditugu lagungarritzat: alde batetik, biztanleria aktiboan % 3,6ko hazkundera izatea, funtsean, jarduera-tasen hazkunderarekin loturik —2007-2009 aldian Bizkaia-Kostako langabeziaren hazkunderaren % 70,2 eragin baitu—; eta bestetik, 2007an, eskualde horretako langabezia-tasa zertxobait handiagoa izatea, % 3, hain zuzen ere, urte hartan Aiaran, Tolosa-Goierri eta Debagoienean baino 1,5 puntu handiagoa.

Bilbo % 9,5era eta Ezkerraldea % 10,6ra iritsi dira

92. Faktore horiek berak direla-eta, Bilbon eta Ezkerraldean % 10 inguruko langabezia-tasetara iritsi dira 2009. urtean (% 9,5 Bilbon eta % 10,6 Ezkerraldean). 2007-2009 aldian okupazio-galera oso txikiak izan dira (% -0,3 Bilbon eta % -1,3 Ezkerraldean), baina eskualde horietan, biztanleria aktiboaren bolumena % 4,7tik % 6,3ra bitarte handitu da biurteko horretan, langabeziaren hazkundera dagokionez, Ezkerraldean % 83,2 eta Bilbon % 93,6 eragin duela (Bizkaia-Kostan bezalaxe, hazkundera horretan erabakigarria izan da jarduera-tasen goranzko joera). Gainera, jardueraren gorakada hori gertatzearekin batera, 2007an langabeziaren eragina handiagoa da eskualde horietan, langabezia-tasa Ezkerraldean % 3,8 eta Bilbon % 4,9 izanik.

Mailarik handiena Gasteizi dagokio, % 10,8rekin

93. 2009. urtean, langabezia-tasarik handiena Gasteizek du (% 10,8), eskualde horretan okupazioaren % 0,5 soilik galdu den arren 2007-2009 aldian, eta 2007ko langabezia-tasa soilik % 2,1 zen arren. Eskualde horretan, langabeziaren hazkunderaren % 94,9 biztanleria aktiboaren gorakadarekin (% 9,3) soilik loturik dago, 2007tik 2009ra bitarte. Hazkunderaren % 43,8 jarduera-tasen gorakadarekin loturik dagoen arren, Gasteizek badu berezitasun bat: eskualde horretan erabakigarria da 16-64 urteko biztanleriaren hazkundera. Igoera horren ondorioz, 2007-2009 biurtekoan biztanleria aktiboaren gorakada handiaren % 56,2 gertatu da.

Donostialdea, tarteko egoeran % 7,5eko langabezia duela

94. EAEn testuinguruan, Donostialdea tarteko egoera dago. Eskualde industrializatuenen eta Eskuinaldearen antza du, okupazioaren jaitziera EAEn batez bestekoa baino handiagoa izan duelako (% -3, 2007tik 2009ra bitarte), eta gainbehera hori, bestalde, langabeziaren kopuruaren (% 60,8) gorakadan funtsezkoa izan da.

Alabaina, langabezia handitu den eskualdeen antzera ere jokatu du, batez ere, jardueraren hazkundearen ondorioz; izan ere, jarduera-tasetan goranzko joerari eutsi dio. Aitzitik, jarduera-tasen eta biztanleria aktiboaren bolumenaren hazkundera (% 1,9) askoz txikiagoak dira jardueran igoera handiak dituzten eskualdeetan baino. Horri guztiari esker, Donostialdeak Bizkaia-Kostaren antzeko langabezia-mailara iristea lortu du (2009an % 7,5), Bizkaia-Kostak baino okupazio-galera handiagoa duen arren, eta eskualde horren antzeko langabezia-tasa bazuen ere 2007an (% 2,8).

Horretaz gain, Donostialdean eta Gasteizen antzeko prozesua gertatu da biztanleria aktiboaren bolumenean izandako goranzko joeraren jatorriari dagokionez, joera horren % 55,3 16-64 urteko biztanleriaren gorakadarekin loturik baitago.

Epe luzera, jardueraren eta okupazioaren arteko lotura eta langabezia-tasek bat egiteko joera

95. Aurkeztutako datuen argitara, 2007-2009 aldian okupazio-jaitsiera handienak izan dituzten eskualdeetan jaitsiera horiek konpentsatu egiten dituzte biztanleria aktiboaren zati bat lan-merkatutik aterata. Aldiz, okupazio-galera txikiak izan dituzten eskualdeetan, biztanle gehiago sartzen da bizitza aktiboan, dela jarduerarako joera handiagoaren bitartez, dela dinamika geografiko jakin batzuen ondorioz (zenbait eskualdetan, etorkinak erakartzeko prozesuekin loturikoak barnean hartuta).

Ondorio hori bat dator aurreko aldietako esperientziarekin. Ildo beretik, 2006tik 2007ra bitarte, jarduera-tasak egonkortu edo jaitsi egin dira zenbait eskualdetan; hain zuzen ere, okupazioa ere egonkortu edo jaitsi egin den eskualdeetan. Jarduera-mailak, ordea, handitu egin dira % 1 inguruko edo hortik gorako okupazio-hazkundera dituzten eskualdeetan.

Alabaina, 2007-2009 aldian badago berrikuntza bat: jardueraren goranzko joera gertatzeko jada ez da beharrezkoa okupazioak gutxieneko hobekuntza-maila izatea, baizik eta enplegu-mailetan beherakada nabarmenik ez dela izango aurreikustea soilik. Krisialdiaren testuinguruan, okupazioan hazkunde garbirik gabe oraindik, aurreikuspen horrek kanpoko biztanleria erakarri ere egin dezake, Gasteizen eta Donostialdearen kasuetan gertatu den bezala 2007-2009 aldian.

96. Ikusi ditugun konpentsazio-mekanismoak, nolahi ere, mesedegarri dira eskualdeetako langabezia-tasetan alde handiegirik ez sortzeko. Izan ere, hamaika euskal eskualdeetatik zazpiren kasuan, funtsean, langabezia-maila % 6,4tik % 9,5era bitartekoa da, eta langabezia-tasa handiena (Debagoiena) eta txikiena (Gasteiz) dituzten eskualdeen artean gehienez ere 5,3 puntuko aldea dago.

Prestasun-tasan antzeko joerak

97. Prestasun-tasei buruzko datuen arabera, langabezia-tasen antzeko posizioak atzeman ditugu, ñabardurak ñabardura. Ildo beretik, Ezkerraldea da enplegu berrian hasteko prest dagoen biztanleria gehien duen eskualdea, 16-64 urteko biztanleria guztiaren % 12,6, hain zuzen ere. Gasteiz, Bilbo, Durangaldea eta Debabarrena Ezkerraldearen antzeko mailan daude, % 10,9tik % 11,7ra bitarteko prestasun-tasarekin.

Kontrako muturrean, EAeko % 10,2ko batez bestekoa baino nabarmen beherago, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta eta Donostialdea daude, % 9 inguruko zenbatekoekin. % 6,9tik % 7,7ra bitarteko mailarekin, mailarik txikienak Aiaran, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan atzeman ditugu.

Langabeziaren eragin diferentziala; jada ez dago emakumeekin zuzenean loturik, baina 35 urtetik beherakoetara zabaltzen da, baita hortik gorakoetara ere, zenbait kasutan

2009. urtearen amaieran langabeziak gora egin zuen Euskadin; horren ondorioz, talde eta eskualde ezberdinak eraginpean hartzen dituzten arazoak askotarikoak dira. Langabezia-tasak % 7,5 edo hortik gorakoak dituzten kolektiboak aintzat hartuta, kasu askotan, eskualdeko tasak zenbateko hori baino askoz ere handiagoak dira gizonetan nahiz emakumeetan, eta, batik bat, 35 urtetik beherakoei eragiten die, baita hortik gorako talde espezifiko batzuei ere.

Sexuaren araberako langabezia gehiago dibertsifikatu da, gizonen eta/edo emakumeen kasuan langabezia-tasa handiak dituztela eskualdeetan

98. 2007-2009 biurtekoan, gizonezkoen artean langabezia asko handitu zen; horren ondorioz, gizonezkoak langabeziarekin loturiko arazo esanguratsuak EAeko eskualde gehienetara zabaltzen dira; izan ere, soilik Aiaran, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan dute % 7,5en azpiko tasa. Gizonen langabezia-tasak % 10etik gora dituzte Gasteizen (% 12,7), Ezkerraldean (% 10,6) eta Bilbon (% 10,1).

Krisiari hobeto erantzun diotenez, % 7,5etik gorako langabezia-egoerak ez dira hain ohikoak emakumeen artean; soilik Ezkerraldean gainditzen da % 10aren maila (% 10,7). % 7,5etik eta % 10era bitarte, Gasteiz, Aiara, Bilbo, Durangaldea eta Debarrena daude. Gizonen kasuan, Tolosa-Goierri eta Debagoiena % 5etik behera daude, baina emakumeen kasuan, langabezia-tasarik txikiena Eskuinaldeak du, muga hori zertxobait gaindituz (% 5,3).

99. Era berean, nabarmendu behar dugu Gasteizen, Bilbon, Durangaldean eta Debarrenean langabezia-tasak % 7,5etik gorakoak direla bi sexuen kasuan, eta Ezkerraldean % 10etik gora daude bi sexuen tasak. Kontrako muturrean, langabezia-tasak % 7,5etik behera daude bai gizonetan, bai emakumeetan, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Tarteko posizioan, Aiara % 7,5era iritsi da emakumeen kasuan, eta maila hori gizonen artean baino ez dute gainditzen Bizkaia-Kostan eta Donostialdean.

Langabeziaren arazoa orokortzea 35 urtetik beherakoetan

100. Krisiaren eraginez, gazteen langabezia asko handitu da; 2009an, gutxieneko mailak % 14-16 ingurukoak ziren Eskuinaldean eta Durangaldean. Gainerako euskal eskualdeetan, langabezia-tasak % 20tik gorakoak dira, eta % 25etik gora ere iritsi dira Gasteizen, Aiaran, Ezkerraldean eta Debarrenean.
101. Halaber, EAEko eremu guztietara zabaldu da krisia, 25-34 urtekoei dagokienez. Aiara, Eskuinaldea eta Tolosa-Goierri eskualdeetan tasak % 7,7tik % 8,8ra bitartekoak dira; gainerako eskualdeetan, ordea, 2009. urtean langabeziaren % 10eko muga gainditu da. Gehieneko zenbatekoak % 14tik % 16ra bitartekoak dira, Gasteizen, Bilbon, Durangaldean eta Debarrenean.

35 urtetik gorakoetan hainbat langabezia-egoera esanguratsu izatea

102. 2007. urtera bitarte, langabezia asko murriztu zen; gainera, adin handieneko taldeak babestuagoak daude krisiaren aurrean. Horri guztiari esker, langabeziaren mailak, oro har, % 5 edo hortik beherakoak dira 35 urtetik gorakoan artean. Hala ere, % 7,4tik % 8,9ra bitarteko langabezia-tasak sumatu ditugu 35-49 urtekoen artean, Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Debarrenean. Arazo hori 50 urteko eta hortik gorako biztanleentara ere zabaldu da Ezkerraldean.

Langabeziaren zabalkundea Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenean

103. Sexuaren eta/edo adinaren arabera gizarte-talde gehienetara iritsi dira langabezia-maila esanguratsua honako eskualde hauetan: Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenean. Eskualde horietan guztietan, langabezia-tasak % 7,5etik gorakoak dira gizonetan eta emakumeetan. Durangaldean izan ezik —35 urtetik beherakoekin soilik atzeman baitugu errealitate hori—, gainerako eskualdeetan tasak maila horren ingurukoak edo handiagoak dira 50 urtetik beherako adin-talde guztietan. Ezkerraldean, errealitate hori 50 urtetik gorakoetara ere zabaldu da.

Zenbait eskualdetan, luzaroko langabeziak gora egin du

104. Lehen ere esan dugunez, urtebeteko edo hortik gorako langabeziaren gorakada gertatu da 2007-2009 aldian, eta zenbait eskualdetan, 2006-2007 biurtekoan hasia zen jada joera hori. Alabaina, gorakada horrek ez du eragin berdina izan eskualde guztietan. 2009. urtean, luzaroko langabeziaren eragin handiena Durangaldeko (% 48), Eskuinaldeko (% 42,5) eta Debagoieneko (% 39,1) langabeei dagokie, eta Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean % 33,6tik % 35,2ra bitartekoa da. Aldiz, % 24tik % 28ra bitarteko mailan daude Gasteiz, Aiara, Bizkaia-Kosta, Tolosa-Goierrri eta Debabarrena.

Zenbateko horiek eta langabeziaren zenbateko orokorrak alderatuz, ikusi dugu zenbait eskualdetan langabezia-maila txikia dela, konparazioz, baina luzaroko langabeziaren maila, berriz, handiagoa, konparazioz. Kasu horretan daude Eskuinaldea eta Debagoiena, baita Donostialdea ere, hein txikiagoan bada ere, EAEko batez besteko mailaren inguruan baitabil. Aitzitik, langabezia-tasa handiak dituzten zenbait eskualdetan luzaroko langabeziaren eragina konparazioz txikia dela ikusi dugu; esaterako, Gasteizen eta Debabarrenean, eta hein txikiagoan, Bizkaia-Kostan, batez bestekoaren azpiko langabezia-tasa baitu.

105. Bestalde, lan-esperientziarik ez duten langabeen garrantzia oso txikia da EAEko eremu guztietan; % 5etik gora eskualde bakarra dago, Tolosa-Goierrri (2009an % 9). Adierazlea % 6ra jaisten da Debagoienean, eta % 5era Gasteizen; EAEko gainerako eskualdeetan % 4,5en azpikoa da¹⁶.

¹⁶ Ezin dugu aipatu gabe utzi Gasteizen eta Tolosa-Goierrin puntu horri buruzko informazioz eman ez duten langabeen proportzioa oso handia dela; kasu horretan, inolako lan-esperientziarik zuzenean adierazi ez dutenen proportzioa % 11,5era eta % 13,4ra handitu da, hurrenez hurren.

KRISI DEMOGRAFIKOA ETA IMMIGRAZIOA

Krisi demografikoaren eragina

35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren bolumenean beherakada garrantzitsua izan da

106. 2009. urte amaieran, zalantzan jarri ezinezkoa da Euskadin lehengo mendearen azken laurdenean izandako jaiotza-tasaren jaitsierak ondorioak izan dituela. Ondorio agerikoena honako hau da: 1993-2009 aldian, 16-34 urteko biztanleriaren bolumena % 25,4 jaitsi da. Adin-tarte horretako biztanleriaren baterako jarduera-tasa zertxobait handiagoa da 2009an 1993. urtean baino (% 68,6 eta % 66,6, hurrenez hurren), baina aipatu dugun joeraren ondorio zuzenena izan da 1993. urtetik 2009. urtera bitarte biztanleria aktiboaren bolumena % 23,1 murriztu dela.

Joan den mendearen amaierako aldaketa demografikoaren eragina argi eta garbi ikusten da jada okupazioari buruzko zenbatekoetan, eta horren ondorioz, gazteenengan eragin diferentziala duen enplegu-krisia larriagotu egin da 2007-2009 aldian. 2002. urtera arte hazi egin bazen ere, 2002-2009 aldian % 38,4 jaitsi da Euskadin lanen bat duten 25 urtetik beherakoen kopurua. 2001-2005 aldian 25-34 urteko landunen zenbatekoa % 5,9 igo bada ere, 2005-2009 aldian, jaitsiera gertatu da, % 12,4ko jaitsiera, adin-talde horretako okupazio-bolumenari dagokionez. Oro har, 2005-2009 aldian % 15,9 jaitsi da Euskadiko 35 urtetik beherako landunen kopurua, bai krisi ekonomikoaren ondorioz, bai adin horretako biztanleriaren bolumena epe luzera murriztearen ondorioz.

Hurrengo urteetan, lan-merkatuan gazteen bolumena jaisteko prozesua areagotu egingo da. Eta horretan lagungarri izan daiteke azken urteotako etena; izan ere, jarduera-tasen goranzko prozesua, itxuraz, eten egin baita. 1993-2003 aldian % 66,6tik % 72,5era handitu ostean, 35 urtetik beherako biztanleriaren jarduera-tasa % 70 inguruko mailan egonkortu da 2003-2007 aldian, eta 2009. urtean % 68,6ra jaitsi da.

Adierazitako amaitze horrek ez ditu eraginpean hartzen soilik 25 urtetik beherakoak — biztanleria horren jarduera-tasak 2003ko % 45,2tik 2005eko % 39,7ra, 2006ko % 39ra, 2007ko % 38,1era eta 2009ko % 35,6ra jaitsi dira—. 25-34 urtekoen jarduerarako joera ere etengabe jaitsi da 2003az geroztik; urte horretan % 89,4 zen, 2007an % 87,4 eta 2009an, ordea, % 86,6.

Atzerritarrak laneratzeko eragozpenak

Immigrazioaren presentzia

107. 2007. urtera arte, Euskadiko lan-merkatua enplegu betearen gertuko egoera zegoen; horri esker, atzerritarrek talde esanguratsua osatu dute EAeko lan-merkatuan. 2009. urtean, Euskadiko 16-64 urteko biztanleria guztiaren % 4,9, gutxienez, osatu du kolektibo horrek; horietatik % 3,9 Europar Batasuneko ez den beste Estaturen batekoa da eta % 1 Europar Batasuneko beste Estaturen batekoa. Zenbatekoek adierazten dutenez, EAEn bizi den eta adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriari gehitutako atzerritar kopurua % 112,6 handitu da 2005. urteari dagokionez (2005eko 33.637 pertsonatik 2009ko 71.513 pertsonara)¹⁷.

Immigrazioak zailtasunak izaten ditu laneratzeko-prozesuetan

108. Etorrinen jarduerarako joera gainerako biztanleena baino handiagoa da 2009an (% 76,6, bertakoena % 71,2 izanik), baina lan-merkatuan egoera askoz ere negatiboagoak pairatu behar izaten dituzte. Hona hemen egoera horren adierazle nagusiak:

- * Etorrinen langabezia-tasa bertakoena baino hirutik gora aldiz handiagoa da (% 24,4 eta % 7,8, hurrenez hurren).
- * Talde horretan, kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen proportzioa izugarria da. Europar Batasunetik kanpoko etorkinen % 47,7k aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe lan egiten du, eta proportzioa % 41,6ra ere heltzen da Batasuneko beste Estaturen bateko herritarren kasuan. Bertako biztanleriari dagokionez, proportzioa % 17,6ra murrizten da.

Testuinguru horretan, honako hau ere aipatu behar da: Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batetik etorritako soldatapekoen % 19,9 kontraturik gabe ari da. Europar Batasuneko beste Estaturen batetik etorritako artean, proportzioa % 2,8 da, eta soilik % 1,1 Estatuko herritarren artean.

- * Lan ez-kualifikatuetan presentzia oso handia da kolektibo horretan. Ildo beretik, Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batetik etorritako atzerritar landunen % 53,8 lanbide-kategoria horretako lan batean ari da. Zenbatekoa % 21,7ra murriztu da Europar Batasuneko beste Estaturen batekoen artean, eta % 15,6ra Estatuko herritarren artean.

¹⁷ 16-64 urteko atzerritar biztanleriaren bolumenean ikusitako igoeraren intentsitatea kontuz hartu behar da. Igoera hori, alde batetik, erreferentzia-biztanleria 2006-2009ko LMEren eragiketetan hobeto atzeman delako gertatu ahal izan da, aurreko eragiketetan baino.

- * Bestalde, 16-64 urteko atzerritar aktiboen % 15,6k ez du lanerako baimenik. Proportzioa % 38,1era igotzen da egungo langabeen artean, baina landunen artean ere esanguratsua da. Egun lanean ari diren atzerritarren % 8,4 lan-baimenik gabe ari da lanean.
- * Lana bilatzen ari diren eta lana lortzeko gestioak egin dituzten atzerritarren artean, % 41,7k esan du bere jatorria eragozpen dela lana bilatzeko.

109. Aipatzeko modukoa da azken aldiko bilakaeran agerian geratu dela hobekuntza garrantzitsuak izan direla etorkinen baldintzetan. Horrela, bada, 2005etik 2009ra bitarte, lan ez-kualifikatuak lortzen dituzten atzerritarren proportzioa jaitsi egin da, EBtik kanpoko herritarren kasuan, bederen (% 74,9tik % 53,8ra EBkoak ez diren Estatuetak nazionalen kasuan; % 24,5etik % 21,7ra EBko beste Estatu batzuetako nazionalen kasuan). Halaber, kontraturik gabe lanpostu batean ari diren eta Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritako soldatapekoen proportzioak behera egin du 2007ko % 24,2tik 2009ko % 19,9ra; errealitate hori herrialde horietatik etorri eta lan-baimenik gabe lanean ari diren etorkinen jaitsierarekin loturik dago (% 10,3, aurreko gutxienekoa 2005ekoa izanik, % 15,3).

110. Hala ere, 2007-2009 aldiko bilakaeran ere ikusten da krisiak atzerritarrengan eragina izan duela. Aldi horretan gora egin du atzerritar landunen kopuruak, baina biztanle nazionalen kasuan ez bezala¹⁸, okupazio-koefizienteen arabera beheranzko joera ikusten da, behintzat EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoen artean. Kasu horretan, 2006. urtetik aurrera beherakada garrantzitsua adierazten du koefizienteak, urte hartako % 67,2tik 2007ko % 64ra eta 2009ko % 54,1era murriztuta. Biztanleriaren gainerakoarekin alderatuta, gainbehera oso handia da, erreferentziako kolektiboaren okupazio-koefizientea EAEkoa baino 0,7 puntu handiagoa baitzen 2005. urtean, baina 2006an 0,4 puntura, 2007an 4,1era eta 2009an 11,2ra igaro da. EBtik kanpoko atzerritarren okupazioaren arazo diferentziala, beraz, 2007-2009ko krisialdia baino lehen sortu zen, nahiz eta krisi hori erabakigarria izan 2009an atzemandako aldean intentsitateari dagokionez.

¹⁸ Atzerritar landunen kopuruak gora egin du 2007ko 35.725etik 2009ko 41.437ra. Okupazioaren hazkundera 8.439tik 10.787ra izan da EBko herritarren artean, eta 27.286tik 30.650era EBtik kanpoko atzerritarren artean. Estatu nazionalen okupazioa, ordea, 935.232 pertsonatik 905.822 pertsonara murriztu da 2007-2009 biurtekoan.

Deskribatutako bilakaeraren ondorioz, langabeziak gora egin du eta atzerritar guztiak hartu ditu eraginpean. 2005eko % 12,3tik 2006ko % 8,2ra murriztu ostean, langabezia-mailak gora egin du, 2007. urtean EAEko atzerritar aktiboaren % 8,7 eraginpean hartuta eta 2009an % 24,4. EBko beste herrialde batetik etorritakoen tasak antzekoak dira 2009an eta 2005ean (% 15,8 eta % 13,9, hurrenez hurren), baina EBtik kanpoko herrialderen batetik etorritakoen kasuan, bitik gora aldiz handiagoa da (% 27 eta % 11,9, hurrenez hurren).

Langabezia-mailen jaitsierak bereziki gizonezkoen eragin die, 2009. urteko atzerritar langabeen guztirakoaren % 63,5 osatzen dutela. Adinari dagokionez, arazoak gora egiten du nabarmen 25-34 urtekoen artean. 2005etik 2007ra bitarte, % 7-9 mailari eutsi dio, baina kasu horretan, langabezia-tasa % 30,6ra arte igo da 2009. urtean, adin-talde guztietatik handiena izanik, 25 urtetik beherakoaren % 23,5 ere gaindituta. 35 urtetik gorako atzerritarren kasuan ere langabeziak gora egin du nabarmen, baina ez hainbesteraino; adinaren arabera langabeziaren barne-banaketa eragina izan du, ordea. 25-49 urtekoek 2007ko atzerritar langabeen guztirakoaren % 59,9 osatzen zuten; 2009an, aldiz, % 78,4 izatera iritsi dira, eta 25 urtetik beherakoaren garrantzi erlatiboa % 32,2tik % 14,6ra murriztu da, aztergai dugun aldira.

Langabeziaren arazoarekin batera, aipatu behar dugu gizarteak immigrazioarekiko jarrera negatiboagoa duela etorkinen artean. Lana bilatzen ari diren atzerritarren artean, lanpostua bilatzeko jatorri nazionala arazo dela diotenaren proportzioa 2003ko % 60,8tik 2007ko % 36,1era murriztu zen. Aldiz, krisialdiaren testuinguru honetan, berriz ere % 41,7raino igo da, baina oraindik ere asko falta zaio 2001-2003 aldira sumatutako diskriminazio-mailak iristeko.

AURKIBIDEA

OKUPAZIOARI BURUZKO ALDERDIAK.....	2
Euskadin 23.000 okupazio garbi baino gehiago galdu dira 2007tik 2009ra bitarte	2
Okupazio berria sortzeko prozesu luzea amaitu da	2
Okupazio-krisiaren eraginpean daude industria, eraikuntza, eta garraio eta komunikazioen adarra	2
Industria	2
Eraikuntza	3
Garraioak eta komunikazioak	3
Jatorria 2007-2009 aldiko krisiaren aurrekoa da	3
Krisiaren eragin handiena pairatzen ari diren talde profesionalak	5
Autonomoen kolektiboa eta sektore pribatuko soldatapekoak	5
Langile soilen lanbideak	5
Kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoak	6
Alabaina, okupazioan berriki izandako aurrerapenaren zati bat finkatu egin da	6
1997-2007 aldiko okupazio berriaren % 89,3ri eutsi egin zaio	6
Okupazio-koefizientea EBko batez bestekoaren gainetik dago	6
Faktore nagusia: Zerbitzu-sektoreko adar gehienen martxa ona	7
Ostalaritza, enpresetarako zerbitzuak eta osasuna/gizarte-zerbitzuak indartzea	7
Merkataritza-zerbitzuak, finantza-erakundeak eta etxeko zerbitzua gora	7
Administrazioaren eta hezkuntzaren geldialdia.....	8
Okupazioak aurrera egiten duen eremuak	8
Okupazioa sektore publikoan eta enplegu-emaila nahiz kooperatibisten artean	8
Zuzendari, teknikari eta administrariak	9
Okupazio mugagabea	9
Aldi baterakotasuna murriztea epe luzera.....	9
Okupazio jarraituaren adierazleek maila handiari eusten diote	10
Sexuaren eta adinaren arabera aldaketen ondorioak	11
Gizonen eta gazteen posizioa beheratzea	11
Gizonak	11
35 urtetik beherakoak.....	11
Okupazioak aurrera emakumeen eta adinekoen kasuetan	12
Emakumeak.....	12
35 urtetik gorakoak eta, bereziki, 50 urte edo hortik gorakoak	12
Bilakaeraren kontrastea 35 urtetik gorako emakumeen eta 35 urtetik beherako gizonen artean	12

Arazo espezifikoa: okupazioa goi-mailako teknologiko sektoreetan	13
Egungo okupazioaren beste zenbait ezaugarri	14
Lanaldi partzialak eta enplegu-aniztasunak garrantzi txikia dute	14
Lanaldi partzialeko lanaren eragin mugatua	14
Enplegu-aniztasunaren eragina marjinala da baina gorantz doa.....	14
LANGABEZIARI BURUZKO ALDERDIAK ETA ENPLEGUA BILATZEKO GAINERAKO EGOERAK	15
Langabeziaren gorakada	15
Mende hasierako mailetara itzultzea	15
Okupazio-jaitsieraren eta jarduera-igoeraren baterako eragina	15
Okupazio-jaitsieraren efektua.....	16
Jarduera-igoeraren efektua	16
Faktoreen arteko lotura	16
Enplegu berrian hasteko prest dagoen biztanleriaren bolumena aldi berean haztea	17
Langabeziaren profil ezberdina EAEn	17
Langabezia bereziki gizonezkoena	18
20-39 urtekoen artean eta, hein txikiagoan, 40-59 urtekoen artean metatuta.	18
Lan-esperientzia badutenak	19
Iraupen laburrekoa oraindik	19
Enpleguarekin kontaktuan dauden pertsonen proportzio handiarekin loturik	19
Luzaroko langabeziaren gorakadaren testuinguruan.....	20
Etsia hartutako ez-aktiboaren kolektiboaren hazkundera	20
Enplegua eskuratzeko eskakizunak gutxitu egin dira	20
Kualifikazioari, adinari eta familia-kargei lotutako mugak	21
OKUPAZIO EGOERA SEXUAREN ARABERA.....	22
Okupazio-aldagaien bilakaera hobea izan da emakumeen artean, generoaren arabera berdintze-prozesuen mesederako	22
Langabezia-adierazleetan posizio hobea	22
Jarduera-tasak	23
Okupazio-koefizienteak	23
Lan egiteagatiko diru-sarrerak nabarmen txikiagoak oraindik ere	24
Euskal emakumea aurrera Europako testuinguruan	24

LAN MERKATUAREN AZKEN ALDIKO BILAKAERA ESKUALDEAREN ARABERA.....	25
ALDEAK OKUPAZIOAREN BILAKAERAN	25
Okupazio-jaitsieraren eragin ezberdina	25
Okupazio-krisi garrantzitsua eskualde industrializatuenetan	25
Debagoienean eta Tolosa-Goierri 2005-2007 aldian jada sumatzen zen joera.....	26
Baina ez Durangaldean, Aiaran eta Debabarrenean	26
Okupazioaren jaitsiera txikiagoa eskualde urbanizatuenetan eta Bizkaia-Kostan	26
Azpiko prozesuak	26
Zerbitzutakoak ez diren sektoreetan okupazioaren beherakada	26
Jaitsiera ez dago konpentsatua eremu ez hain urbanizatuetan	27
Zerbitzu-sektorea konpentsatzeko gai da urbanizazio handieneko eremuetan	27
Ikuspegi sintetikoa: industria-krisia eta zerbitzu-sektoreak etorkizunean hazteko gaitasuna	28
Eskualdeetako okupazio-koefizienteak bat etortzea	29
Okupazio-mailetan beherakada orokorren testuinguruan, hala ere	30
Europar okupazio-maila handieneko herrialdeetatik urruntzen ari da Euskadi.....	30
Eta hazkundearen zenbait muga historiko berriz ere gogorazi behar	31
Muga horiek EAEko beste eremu batzuetara zabal daitezke, industriaren krisiaren eraginez.....	33
ALDEAK JARDUERAREN BILAKAERAN	33
Biztanleria aktiboaren gorakada Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean	34
Jarduera-tasaren jaitsiera gainerako eskualdeetan	34
LANGABEZIAREN EGOERA	35
Okupazioaren eta jardueraren bilakaeraren eragina langabezia-mailan	35
Jarduerari eustea lagungarria da okupazioaren jaitsieraren eragina murrizteko eskualde industrialenetan eta Eskuinaldean	35
Aiaran, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean langabezia-tasei % 5 inguruan eustea ahalbidetzen du	35
Aldiz, ez da nahikoa Durangaldean eta Debabarrenean % 9 inguruko langabezia-tasetara iristea saihesteko.....	36
Batik bat, jardueraren goranzko joeraren ondorioz, Bizkaiko zenbait eskualdetan eta Gasteizen langabezia-tasak gora egin du	36
Bizkaia-Kostak tarteko langabezia-tasa du, % 7,5 ingurukoa.....	37
Bilbo % 9,5era eta Ezkerraldea % 10,6ra iritsi dira.....	37
Mailarik handiena Gasteizi dagokio, % 10,8rekin	37
Donostialdea, tarteko egoeran % 7,5eko langabezia duela	37
Epe luzera, jardueraren eta okupazioaren arteko lotura eta langabezia-tasek bat egiteko joera	38

Prestasun-tasan antzeko joerak	39
Langabeziaren eragin diferentziala; jada ez dago emakumeekin zuzenean loturik, baina 35 urtetik beherakoetara zabaltzen da, baita hortik gorakoetara ere, zenbait kasutan	39
Sexuaren araberako langabezia gehiago dibertsifikatu da, gizonen eta/edo emakumeen kasuan langabezia-tasa handiak dituztela eskualdeetan	39
Langabeziaren arazoa orokortzea 35 urtetik beherakoetan	40
35 urtetik gorakoetan hainbat langabezia-egoera esanguratsu izatea	40
Langabeziaren zabalkundea Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debarrenean	41
Zenbait eskualdetan, luzaroko langabeziak gora egin du	41
KRISI DEMOGRAFIKOA ETA IMMIGRAZIOA.....	42
Krisi demografikoaren eragina	42
35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren bolumenean beherakada garrantzitsua izan da	42
Atzerritarrak laneratzeko eragozpenak	43
Immigrazioaren presentzia	43
Immigrazioak zailtasunak izaten ditu laneratze-prozesuetan	43